

TOKIKOM

2016ko martxoa | 157. zenbakia

ai!kor!

txorierriko aldizkaria



Eneritz Amondarain, artista

Sormena alde guztietatik




RENOVE PLANA

Diru-laguntzak, leihoak aldatzeko

Atzeraeraginezko izaera
Izapide guztiak, geure esku



Azkar ibili, diru-laguntzak
mugatuak dira-eta



PERSIANAS Y
VENTANAS
GORDONIZ

ADITUAK, PERTSIANA ETA LEIHOETAN



- Pertsianak-eta aldatzen ditugu era azkar, garbi eta fidagarri batean
- 6 hilabeterako finantzaketa, interesik gabe
- Lan integralak Gremioak koordinatzea

Toldoak – Eltxo-sareak

Bilgarriak – Marta esekitokiak – Estoreak – Panel japoniarrak

Gordoniz 97, 48002 BILBAO ☎ 946 034 689 – 678 054 887 📞

www.persianasgordoniz.com 🌐 info@persianasgordoniz.com 📱 Persianas Gordoniz

-  **4** Eritxiak
-  **5** Laburrak eta albisteak
-  **11** Irudietan... Tina Gorjón, ONCEko saltzailea
-  **12** Gurean izan da... Mikel Losada, aktorea
-  **14** Gaztea eta... Goiznabar Monclús, abenturazalea
-  **16** Txorierriko Zerbitzuen Mankomunitatea
-  **18** Eneritz Amondarain, artista
-  **22** Pedro Luis Dañobeitia, belar-zaintzailea
-  **24** Artxandako jolas-parkea
-  **26** Eternal Running lasterketa, Loion
-  **28** Fuentene Berria erretegia
-  **30** Elkarteak... Moreak Lezamako taldea
-  **32** Berbalagunen txokoa... Txorierriri bira, oinez
-  **34** Teknologia... Euskalkiak.eus
-  **35** Aikorrizketa... Gure planetaren sukarra
-  **36** Sukaldaritza
-  **37** Denborapasa
-  **38** Agenda



14 Goiznabar Monclús, abenturazalea



26 Eternal Running lasterketa



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

**HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA**

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

**DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA**

Viceconsejería de Política Lingüística



**Bizkaiko Foru
Aldundia
Diputación
Foral de Bizkaia**



diruz lagundutako aldizkaria



Argitaratzailea: TOTOAN,
Txorierriko Euskara Elkarte
Federazioa (Lagatzu, Zorritzeta,
Arrekili, Tximintx eta Altxora)
Tel.: 94 452 34 47 / 688 86 41 35
aikortxori@aikor.com /
www.aikor.com

Zuzendaria: Xabier Goienetxe

Erredakzio burua: Itxaso Marina

Erredakzio taldea: Maite Lekerika, Gaizka Eguzkitza, Juan Luis Goikoetxea
eta Aritz ta Nagel

Kolaboratzaileak: Unai Ugalde Olea, Susana Rodríguez y Rodríguez, Idoia
Andrés, Jon Goikouria Larrabeiti, Txerra Rodríguez, Bestorrene, Oihana
Astobieta, eta Jose Angel Mentxaka

Zuzentzaileak: Alberto Mtz. de la Cuadra, Iñaki Astorkiza eta Jagoba Zallo

Publizitatea: Arantza Atxutegi (686 58 92 38)

Banaketa: Egunon

Maketatzailea: Gaizka Eguzkitza

Inprimategia: Gertu

Ale kopurua: 7.000

Lege gordailua: BI 137-02 ISSN 1578-9322



AIKORI! aldizkariak ez dau bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esan-
nen edota eritzien erantzukizunik.

Kirol lehia, irol lohia

Duela zenbait hilabete, akaso urtebete, entzundako kontakizun batekin natorkizue oraingoan. Ez dut kontrastatzeko aukerarik izan, eta beraz ezin dut ziurtatu gertatu egin zela, baina nolanahi ere kirolak eta lehiak gaur egun bizi duten hartu-eman gatazkatsua irudikatzen du bete-betean.

Txirrindulari ez-profesionalentzako lasterketa batean izan omen zen, Euskal Herritik kanpo. Bertaratutakoak, ehundik gora, abiatzeko prest zeudela, antolatzaileen oharra megafoniatik: aurtengo saioan dopin kontrola izango dugu. Bada, parte-hartzaileen erdiak baino gehiagok amaitu barik utzi zuten proba, kolore guztietako aitzakiak emanda: katea hautsi zaidala...

Istorio horrek zer pentsatua eman zidan, eta harrezkeroztik adi jarraitzen diet gai horietako albisteei, hau da, kirol lehia eta irol lohia bereizten dituen marra ahula azaleratzen dutenei. Eta urtea hasi denean, arlo horretako albiste bik txunditu

naute gehien. Batetik, urtarrilean ezagutu genuen hura, tenis partidak emaitza adostuta jokatzearen inguruan, apustuen munduko zenbait eragilek bultzatuta [1]. Eta ez pentsa azpiko edo tarteko mailetakoa tenisleriak ziprztindu dituela, ez horixe, punta-puntan dabilenen zenbait izen ospetsu azaldu ziren-eta informazio horietan, baita sona handiko torneoenak ere (Wimbledon).

Bestetik, otsailean argitaratu da motortxo bat topatu dutela ostenduta ziklo-kros espezialitateko bizikleta batean, noiz eta munduko txapelketa jokatzen zen egunetan [2]. Ohartu zaitezte hau ez dela susmoa, egitatea baizik (tenisaren auzian susmo sendoak bai, baina frogaz zehatzik ez omen da aurkitu oraingoz). Ustezko jabeari galdetuta, bere erantzuna: "Bizikleta ez zen nirea. Nik sekula ez nuke iruzurrik egingo".

Futbol kontuetan ez naiz sartu, Bizkaian –eta beraz Txorierrin ere– fanatiko samarrak garelako, baina ezin aipatu



UNAI UGALDE OLEA

(Doktorea Ingeniaritza Elektronikoa)

gabe utzi Osasuna taldea sufritzen dabilen gurutze-bidea, bere agintariek hainbat urtez ogasun iruzurretan eta beste talde batzuen arteko partiden emaitzetan eragin nahian egindakoen ondorioz.

Lehiatu, garaitzeko egiten da. Baina garaitze horretan, irabazi baino gehiago galdu egiten da batzuetan. Lehiaren osasuna, Osasunaren lehia.

[1] <http://www.bbc.com/sport/tennis/35319202>

[2] <http://www.bbc.com/sport/cycling/35452791>

Martxoaren 8a ez dut aspaldi ospatzen. Uste ustelen eguna delako. Eta nire *generoagatik* zorionak ematea ere ez dut nahi. Nire duintasuna horren gainetik dago, zinez. Zertarako? Oraindik ere gogoratu diezadaten emakume hutsa izateagatik gizarte-eskubide jakin batzuk, publikoak zein pribatuak, ukatuta ditudala? Hezkuntza jasotzeko eskubiderik ez daukadala? Lan duinik ez daukadala? Lan berdina egitearen truke, gizon batek baino askoz gutxiago kobratzen dudala? Etxebizitza duinik ez daukadala? Etxeko lanak eta familiarteko zaintza-lanak

Ospatzekorik ez



SUSANA RODRIGUEZ Y RODRIGUEZ

(Abokatua eta bitartekaria)

era orekatuan banatuta ez daudela? Nire gorputzarekin zer egin nahi dudana askatasunez erabaki ezin dudala? Tratu txar fisiko eta psikologikoak pairatzen ditudala? Zuzendaritzako goi-mailako karguak bete ezin ditudala? Gerrek, tokialdaketek eta behartasun gorriak nire intimitatea eta esku-bideak bortxatzen dituztela? EZ, eskerrik asko. Ez dut esker oneko barbarik entzun nahi. Egitate biribilak gurago. Emakumeen eguna egunero da (eta izango da), langilea izan ala ez izan. Eta horixe aldarrikatzen dut. Fede txarreko "berdintasun-txatalak" doazela pikutara.

Abelino Arraindegia

Gorbea kalea, 4 - 48160 DERIO
T: 94 602 75 25-6

ADARVE KAFETEGIA

Gosariak
Plater konbinatuak
Pintxoak
GIRO ONA

Sollube, 2 DERIO Tel: 94 608 95 31

aldekone
hartz klinika
Tel.: 94 454 15 87

Anuska Prieto Aguilar
Odontologoa

Urbeta 7, behea
48160 DERIO (Bizkaia)

–Especialitate guztiak zentro bakar batean
–Aurrekontua doan
–Especialitatea: umeak

Becerra eta Vázquez, txapeldunak Karraderan



a: Karraderan

Walter Becerra eta Montse Vázquez atletak irabazi dute Burdinazko Harresian Karraderan lasterketaren hirugarren edizioa. Lasterketa Larrabetzun egin zen martxoaren 12an. Guztira 270 korrikalarik hartu zuten parte lasterketan, eta horietako 40k baino ezin izan zuten lasterketa bukatu. Antolatzaileek aitortu dute aurten iaz baino parte-hartzaile gutxiago sartu direla lehian, baina ez daude kezkatuta. "Gurea oso lasterketa gogorra da ez dago edozeinen eskura. Gainera, lasterketa pilo bat daude egutegian eta agian korrikalari batzuek erabaki dute beste lasterketaren batera joatea".

Gizonezkoen mailan, Imanol Larrañagak eta Roberto Garayk osatu zuten podiuma; emakumezkoen mailan, Lide Gorostiola larrabetzuarrak bigarren postuan bukatu zuen lasterketa, eta Nerea Amilibiak hirugarrenean. Korrikalariek 32 kilometro egin zituzten eta, besteak



beste, Gaztelumendi (323 m), Arrizuri-gane (326 m), San Martingane (565 m) eta Bizkargi (565 m) mendiei egin behar zieten aurre. Tartean, Gerra Zibileko hainbat lubaki eta bunker ikusteko aukera izan zuten, baita horietako baten barrutik pasatzeko aukera ere.

Aurten, lehendabiziko aldiz, antolatzaileek lasterketa bukatzeko denbora-muga ipini dute. Gehienez sei ordu eman ziren 32 kilometroak egiteko, eta 12. eta 20. kilometroetan kontrolguneak ipini ziren, egin egiten zela ziurtatzeko. "Ez dugu martxa bat izan nahi, lasterketa bai-zik", arrazoitu dute. Antolatzaileek esker-rak eman nahi izan dizkiete bai babesle, bai laguntzaile guztiei, baina bereziki eurek laguntzera hurbildu diren larrabetzuar guztiei.

GAMINIZ
JATETXEA



Tel/Fax: 944 317 025
email: gaminiz@gaminiz.com

Ibaizabal 212, Parke Teknologikoa
48170 Zamudio - Bizkaia
GPS: 2°51'41" N 43°17'37" W

www.gaminiz.com

Alaia
fruta-denda

Etkez etxeko zerbitzua
Bertoko produktuak



Talleri, 5
48170 Zamudio
94 485 05 85

ama
taberna 3

Leizaola plaza, 7 - behea (ZAMUDIO)
94 655 93 69

HARATEGIA
ALBERTO



Arbolantxa, 4
T: 94 452 08 25
48170 ZAMUDIO

AmAr
ileapaindegia

Asteartea-ostiralea:
9:00-19:00
Laburuntza:
8:00-13:30

Uribe plaza, 1 behea
Zamudio
94 4520419

Motorrek Loiu hartuko dute

Eta hori apirilaren 23an eta 24an egingo dute, hango Txori Bikers elkarteak motorren kontzentrazioa antolatu duelako bosgarren aldiz. Loiuako kontzentrazioak oso harrera ona eduki du hasieratik eta asteburuan zehar Bizkaitik zein inguruko herrietatik etorritako motorzaleak batzen dira bertan, baita giroa eta programatzen diren ekintzak ikustera hurbiltzen diren herritarrek eta txorierriarrak ere. Egitarau hau antolatu da asteburu osorako:

Apirilak 23, zapatua

- 10:00: Izena ematea.
- 11:00-13:00: Ibilbidea.
- 13:30-15:00: Tabernen ibilbidea, Loiu.
- 15:00: Paella jana.
- 16:30: Motor jokoak.
- 18:00: Pintxopoteoa, txosnan.
- 19:00: V Direction taldearen kontzertua.
- 20:00: Sariak zozketatzea.
- 20:30: V Direction taldearen kontzertua.

Apirilak 24, domeka

- 10:00: Izena ematea.
- 11:30: Ibilbidea eta geldiunea jate-txe batean, hamaiketako egiteko.



Txakolinaren Eguna, Larrabetzun

a: Idoia Andrés

Larrabetzuarrak Txakolinaren Eguna-ren 15. edizioa ospatu zuten martxoaren 20an. Eguraldi ona lagun, jende pilo bat hurbildu zen Larrabetzura eta oso giro polita izan zen egun osoan zehar. Txorierriko ekoizleek txakolina eskaini zuten zortzi postutan eta baserriko beste produktu batzuk ere ipini ziren salgai, hala nola taloa, eztia eta ortuariak. Txakolingileak poz pozik azaldu ziren aurtengo uztarekin, azokan ikusi zen moduan, kalitate handiko txakolina ekarri duelako.

Brindisa Iñaki Suarez larrabetzuarrak, Euskadiko Sumillerren Elkartearen presidenteak, egin zuen. Iñaki Suarezrek txakolinari buruzko aurkezpen txiki bat bota

zuen, eta kortxoa ateratzeko teknika ere azaldu zuen. "Txakolin, txakolin, Txorierriko txakolin, on egin!" brindisa egin eta txakolina eskaini zien Iñigo Gastelu Larrabetzuko alkateari eta Txorierriko txakolingileei. Azoka eguerdi aldera bukatu zen, baina Hori Bai gaztetxekoek ekintza batzuk antolatu zituztenez, giroa arratsaldera arte luzatu zen.




hotela
jattetxea
aretxarte

Teknologi Parkea - Eraikuntza, 200
48170 ZAMUDIO - (BIZKAIA)
Telefona: 94 403 69 00
Faxa: 94 403 69 01
e-mail: hotel@aretxarte.com
e-mail: reservas@aretxarte.com
www.aretxarte.com

Arantza Amondarain Lasa
Ginekologoa
Txorierri parkearen 3-4
413. bulegoa
48150 Derio
Telefona eta faxa
94 454 44 58
a.amondarain@guvutur.net

 Construcciones-Reformas
IÑIGO BARCENA
Igeltzerotza orokorra
Especializatea:
Xafra-lanak
Zoruak
944522510 - 665703312 - 652772016


astikenemotor
www.ASTIKENEMOTOR.com
DERIO - 946 451 781


luz zamudio
ARGI APARATUAK
Nekazari kalea, 4 (lorja) Tel./Faxa 94 452 11 60
48170 Zamudio - Bizkaia



Apirileko feria ekarriko dute Deriora

Piperdun herriko flamenko elkartearen eskutik izango da apirilaren 23an, egun osoan zehar. Ekitaldiak Sollube kaletan egingo dira. Goizeko 10etatik aurrera, umeei zein helduei zuzendutako tailerrak egongo dira, hala nola kapelak, faroltxoak eta flamenko gonak egiten ikaste-tailerrak, eta perkusio eta txalo tailerrak. Era berean, lehiaketa bi egingo dira: bata, material birziklatuzko flamenko gona lehiaketa; eta bestea, "Hegoaldetik Iparraldera" izeneko pintxo lehiaketa.

Bestalde, Piperdun taldeak saioa eskainiko du arratsaldeko 6etan. Horretarako, Sutondoan emakume elkartearen eta Lainomendi dantza taldearen laguntza edukiko du. Ostean, pintxo-poteoa egongo da ostalarien eskutik, eta lehiaketan sariak banatuko dira. Sariak Danerik

Paraje dendarien elkarteak ipiniko ditu. Azkenik, La Piti por Rumbas taldeak ikuskizuna eskainiko du gaueko 9:30ean. Tailerretan zein tabernetan itsulapiko solidarioak ipiniko dira eta batzen den dirua Bizkaiko Elikagaien Bankuarekin lan egiten duen Derioko elkarteari emango diote.

"Derio kalera atera eta ondo pasatzea gustatzen zaion herria da. Horregatik erabaki genuen Apirileko feria antolatu eta haren inguruan dauden alderdiak derioztarrei hurbiltzea. Gainera, aukera ona da taldean dabilen lagunek ikasitakoa jendaurrean erakusteko", esan digute Piperdun taldetik. "Espero dugu jendea animatu eta ederto pasa dezatela. Baita herriari bizitasuna ematen lagun diezagutela ere".

Masaje ikastaroa

Altzora Sondikako euskara elkarteak antolatu du apirilaren 18rako eta 25erako, eta helburu hau du: nork bere buruari zein beste inori tentsio-puntuak lasaitzen ikastea. Ikastaroa Nora Fisioterapiari, Sondikan bertan, emango dute 18:30etik 20:00etara, eta bost euro balio du elkarteko kide-entzat eta berbalagunentzat, eta 10 euro gainontzekoentzat. Leku mugatua dago eta izena ematea apirilaren 11ra arte egin daiteke telefono zenbakian honetan: 635 75 35 95.

Balkoi apainduen lehiaketa, Sondikan

Udalak antolatu du bosgarren aldiz, azpimarratzeko balkoiak herri baten elementu estetiko garrantzitsuak direla. Izen ematea apirilaren 7tik 15era egin beharko da liburutegian, eta ipini beharreko loreak apirilaren 23an, 9:00etatik 14:00ak arte, banatuko dira Goiri Erdikoa plazan. Orotara, 500 euro banatuko dira sarietan. "Familia bakarreko etxebizitza eta etxe atxikiak" kategoriaren irabazleak 150 euroko txartela jasoko du; eta bigarrenak, 100 euroko txartela. Bestalde, "Etxebizitza-blokeak" kategoriaren irabazleak 150 euroko txartela jasoko du saritzat; eta bigarrenak, 100 euroko txartela. Dirua Sondikako dendetan gastatu beharko dute. Balkoiak ekainaren 13rako egon beharko dira apainduta, eta sariak ekainaren 25ean jakinaraziko dira.

Hortz-klinika IDOIA ZUBIETA
Osasun-zentroa & Hortz-estetika
HORTZ-INPLANTEAK - ESTETIKA-ORTODONTZIA

Areitza doktorea, 11. - 1. ezk.
48011 BILBAO
T: 944 416 322

Unibe Plaza, 1
48170 ZAMUDIO
T: 944 521 370

KPS, 184.01

OPTIKA IKUSLAN

Arbolantxa kalea, 5, behea
ZAMUDIO
Tel.: 94 452 28 18

TALLERES JUAN ANDRES
AUTOMOBILAREN ELEKTRIZITATEA ETA MEKANIKA
PUNTUAN JARTZEA

Torrelarragoiti ind., 8 - 216 Pab.
Tel.: 94 452 07 09

48170 ZAMUDIO (Bizkaia)

Txinbo kalea, 9
48170 ZAMUDIO
94 452 26 75

BIDE-GORRI

Askotariko pintxoak - Plater konbinatuak
8:00etatik irekia
WIFI gunea

ERREKA ONDO ETXEA

Eguneko menua, asteburuko menu berezia, karta, enpresen bazkariak, jaunartzeak, familien bazkariak

Arteaga, 80
Zamudio 48170 (Bizkaia)
Tfnoa.: 94 452 14 19
Faxa: 94 452 26 29

Garmendia ardoak

Pinoa pol., P-3B
ZAMUDIO
Tel./Faxa: 94 452 00 49



Koilarak jotzen ikastea, Bertokoren eskutik

Zamudioko elkarteak apirilaren 15erako, 22rako eta 29rako antolatu du ikastaroa, eta Patxi Oregi Taberna Ibiltaria taldeko kideak emango du. Ikastaroa arratsalde izango da, 18:30etik 20:30era, eta Bertoko taldekoei zein gainontzeko herritarrei dago zuzenduta. Gainera, edozein adinetako lagunek hartu ahal dute parte bertan. Izena emateko, mezu bat idatzi daiteke bertokozamudio@gmail.com helbide elektronikora; edo 615 74 95 70 telefono zenbakira deitu.

Bestalde, Bertokok 20 urte bete ditu aurten, eta urteurrenaren haritik, *Bertoko Hauspoz hauspo 20 urte (1996-2016)* dokumentala grabatu dute. Berrogei minutuko bideoa da eta taldearen ibilbidearen momenturik esanguratsuenak batu dituzte bertan. Bideoa YouTubean dago ikusgai eta Bertokok AIKOR! aldizkariaren webgunean duen txokoan: aikor.com/txokoa/bertoko/.

Umeak eramateko motxilak bidali dituzte Loitutik Lesbosera

Donostiako ama batzuek umeak eramateko motxilak eta fularrak batzeko kanpaina ipini dute abian. Kanpainaren bidez batzen den materiala Siriako errefuxiatuei bidaliko diete. Helburua, herri horretatik ihes egin duten pertsonen seme-alabak modu erosoago batean eramaten laguntzea da. Materiala AAPS elkartearen bitartez bidaliko da. Elkarte hori 2011n sortu zen Siriako herritarrei eta iheslariari babesa emateko.

Kanpainak oihartzun handia eduki du eta materiala biltzeko guneak sortu dira

Estatu osoan zehar. Loituko Denontzat elkarteak ere egin du kanpainarekin bat, eta 20 motxila batu dituzte. Azaldu digutenaren arabera, kanpainaren arduradunek motxilak Lesbos irlara (Grezia) bidali dituzte dagoeneko. Umeak eramateko motxilez gainera, janaria ere batu zuten. "Beste motxila-sorta bat erosi dugu eta materiala apirilaren 23an eta 24an ipiniko dugu salgai, herrian egingo den motoren kontzentrazioan. Txupeteak, biberoiak, zerealak... be egongo dira salgai. Bestalde, Donostiako kide batzuek Zaporeak proiektua ipini dute abian eta

Greziako Chios uhartera joan dira errefuxiatuei laguntzeko. Otorduak prestatzen dabilta eta arroza, dilistak... bezalako jatekoak behar dituzte. Guk ere proiektu horretan parte hartu nahi dugu eta Txorierriko alkateekin hitz egiteko asmoa dugu, Txorierri mailan janari bilketa handia antolatzeko".



Iñaki 94 455 65 08 **Jabi** 94 452 14 31

Magalarte Txakolina

ARITXABALETTA KONDIA ETA BOTILARTEA

75 cl. 10,75 % vol.

Bizkaiko Txakolina Denominación de Origen

Ale-aphaindegia

M^a Antonia Llodio

Txorierriko etorbidea, 6 Tel.: 94 452 02 70 48170 ZAMUDIO (Bizkaia)

LEANDRO LANDETA

HARAGITEGIA-URDAITEGIA

Oitz Kalea, 1 • Tel. 94 452 00 69 - 48170 ZAMUDIO

TXORIERRI MARMOLDEGIA

Sukalde eta bainugeletako harriak
Fatxadak • Atariak • Hilerriak

Torrelarragoti ind., 7 B P. - 2. nabea
48170 Zamudio (Bizkaia)
T./F.: 94 608 01 41-2

GORBEIA MERTZERIA

Gorbeia kalea, 7
ZAMUDIO
94 655 90 06



Liburuaren Eguneko ekitaldiak

Liburuaren Nazioarteko Eguna apirilaren 23an ospatzen da eta data horren inguruan ekitaldiak egongo dira gure herrietan. Hala, apirilaren 21ean, Angel Lertxundi idazleak *Zu* liburua aurkeztuko du, 19:00etan, Angulari Larrabetzuko Kultur Etxean. Larrabetzuko eskolako bosgarren eta seigarren mailetakoko ikasleek irakurraldiak egingo dituzte goizean eskolako gainontzeko umeen aurrean, eta arratsaldean, 17:00etan, txikientzako ipuin kontalaria egongo da. Eskolako umeek irakurraldiak egingo dituzte berriro arratsaldean, 18:00etan, baina oraingo honetan nagusien aurrean. Liburuekin malabarismoak egiten dituen *clown* batek emanaldia eskainiko du, eta 22:00etatik 22:30era nagusiei zuzendutako irakurketa saioa egingo da.

Bestalde, Zamudioko liburutegian "liburu rallya" antolatu dute hilabete osoan

zehar. Erabiltzaileek liburu ezberdinen aipuak aurkituko dituzte bertan, eta aipu horien bidez zein liburu den igarri beharko dute. Asmatzen dutenen artean, 40 euroko txekak zozketatuko dira Zamudio liburutegian gastatzeko. Ines Bengoa ipuin kontalaria saioa eskainiko du apirilaren 20an, 17:30ean, Derioko liburutegian. Leku mugatua da eta izena ematea apirilaren 4tik 19ra egin behar da. Azkenik, Loiuko liburutegian "Eman liburua eta adoptatu istorio bat" ekintza ipiniko dute martxan apirilaren 18tik 29ra. Aurreko urteetan bezala, apirilean ere hasiera emango zaio Irakurri, Gozatu eta Oparitu kanpainari. Ale hau itxi orduko, jakinarazi digute kanpaina Larrabetzun eta Zamudion egingo dela. Beste herri batekoa bazara, galdetu zure liburutegian edo herriko euskara elkartearen.

Gazte Eguna, apirilaren 16an Zamudion

Inisitue gazte asanbladak ekitaldi sorta zabala antolatu du egun osoarako. Hala, goizeko 11:00etatik aurrera, gaztetxoentzako ekintzak egongo dira, eta eguerdian poteo girotua. Bazkarirako txartelek 10 euro balio dute eta Susterrak, Fernan eta Ama3 tabernetan har daitezke, edo inisituegazteasanblada@gmail.com helbide elektroniko-ra idatzita. Arratsaldean, gazte olinpiadak eta elektrotzaranga izango dira, eta 20:30ean, ekitaldi nagusia. Kontzertuei 23:00etan emango zaie hasiera. Eszenatokira talde hauek igoko dira: Hardcore.exe; Arkada Sozial eta Garilak 26.



ASESORÍA
Luis Fernando Aguirre, s.l.

Mateo Bidaurreazaga, 1
Tfno: 94 453 33 28 - Fax 94 471 06 28
48150 SONDIKA (Bizkaia)

auzoKide
Finken administratzailea

LORENA GAMBOA AGUIRRE

Txorisol 4, behea B
48150 SONDIKA

634 410 470
auzokidefincas@gmail.com

Goiri'78 s.l.
Zerbitzu ofiziala

Izarza Pol.
48150 Sondika
Bizkaia

94 453 25 15
94 453 39 31

Peñasko
arraindegia

Mendiko, 4
48170 Zamudio
Tel.: 94 452 0808

GALAISA
Estetika eta ile-apaindegia

94 453 04 85 - 94 471 10 51

Sabino Arana 1-3, SONDIKA



Derioko udal kiroldegiak irudi berria dauka

Derioko udal kiroldegiak (DUK) 25 urte bete ditu eta urteurrenaren haritik, irudi korporatibo berria aurkeztu da. Esther Apraiz Derioko alka-teak eta Nekane Aiarza kirol zinego-tziak azaldu duten bezala, irudi gaurkotua eta modernoa da, kirol-degiak berak eduki dituen bilakaera-rekin eta hobekuntzekin bat egiten duena. Era berean, azpimarratu dute DUK kirol erreferente handia dela herrian eta, besteak beste, bere zer-bitzuen kalitateagatik nabarmen-tzen dela. Hala, 3.500 abonatu ditu eta zerbitzua Txorierriko beste herri batzuetako lagunei eta ikastetxeei ere eskaintzen die.

Kiroldegia 25. urteurrena ospatzeko, "Futbola eta balioen transmisioa" hitzaldia eta futbol par-tida solidario bat antolatu ziren mar-txoan. Apirilaren 7an, "74 egun, Himalaia zeharkatzen" hitzaldia eskainiko du Iñigo Iruretagoienak, 18:30ean, Kultur Birikan.

Erromesentzako aterpea zabalduko da udan, Larrabetzun



Larrabetzuko Udalak eta Bizkaiko Do-ne Jakue Bideko Ospitalari Bolondresen Elkartek hitzarmena sinatu dute, Larra-betzun udan erromesei zuzendutako aterpea martxan jartzeko. Aterpea esko-lako gimnasioan jarriko da uztailearen 1etik abuztuaren 31ra bitartean. Bertan 22 lagunek izango dute egunero lo egite-ko aukera, eta behin behineko beste 10 leku eskaini ahalko dira. Udalak erabilera-ren ondorioz sortutako gastuak (gasa, argindarra eta ura) ordainduko ditu, eta elkarteak aterpea mantentzeari dagoz-kionak (garbiketa, botikina hornitzea). Es-kainitako zerbitzuaren kalitatea hobetze-ko, elkarteak aterpean behin erabili eta

botatzeko izara eta burko-azalak erabili-ko ditu, eta berak ordainduko ditu.

Larrabetzuko ez da izango Txorierri-n dugun aterpe bakarra, Lezaman ere badagoelako. "Lezama-ko topera dabil eta ezin du erromes gehiagorik hartu. Larrabetzun jarriko duguna osagarria izango da", esan digu Iñigo Gastelu alka-teak. "Elkartekoak gugana etorri ziren duela zazpi hilabete. Aintzat hartu zituz-ten Larrabetzuko dituen zerbitzuak eta giroa. Guri herrian aterpea jartzeko pro-posamena oso ondo iruditu zitzaigun. Izan ere, herria lau haizeetara ezagutza-remango da eta, bide batez, onura ekarri-ko die herriko dendei eta tabernei".





Tina Gorjón | 2015eko ONCEko Euskadiko saltzailerik onena

Emakume derioztar honek 24 urte eman ditu kupoak saltzen: 10 urte Bilboko Autonomia kalean, eta 14 urte Derioko Udaletxe parean dagoen saltokitxoan. ONCEko langile askok bezala, Tina lanaldi osoa egiten du metro karratu gutxiko kabinan. "Ez dago alderik kalean lan egin eta kabinan lan egitearen artean. Kupoak saltzeaz gain, egokitutako liburu elektronikoak irakurri eta irratia entzuten dut", adierazi digu Pigmentu Retinosia pairatzen duen saltzaileak. Hori ikusmenaren endekapenezko gaixotasuna da. Pasa den hilaren 19an, 2015eko Euskadiko Saltzaile Onenaren saria jaso zuen Madrilén. ONCEko saltzaileak hirutan banatu du 35.000 euroko sari nagusia: 10 kupoitako sari bakarra eta kupoi bakarreko sari bi. "Sariak banatzea oso aberasgarria da", adierazi du Gorjónek, "eta bezeroei zein ONCE enpresari bereziki eskertzen diet gizarte-obra garrantzitsu honekin kolaboratzea".

Testua eta argazkia: Jon Goikouria Larrabeiti
www.atomikastudio.com – facebook.com/atomikastudio

Iezama
consultorio veterinario
albaitaritza klinika
www.consultorioveterinarioiezama.com
J.R. Galdona Madariaga
BI-515

Medikuntza orokorra
Txertaketak
Parasitoak hil
Mikrotxipa
Kirurgia
EKG
Analisiak
Ospitalizazioa
Ekografiak

servicio de urgencias
24h

94 455 56 19 Aretxalde, 21bis • 48196 Lezama

PATXI
KOOP

PATXI KOOPERATIBA ELKARTEA
Nafarroa pabilgona | Oteazte 4. 48175 Zornotza (Bilbao) | Tel: 944 522 387 | info@paxi.coop | www.paxi.coop

BOLALEKU
JATETXEA

10. URTEURTERA

Gordailuz, 1 - LEZAMA
94 455 41 10
Jatetxea
Facebook

- Hainbat menu
- Karta
- Ospakizunak
- BOLAPARK

"Zorionez, gero eta film gehiago daude euskaraz"

t: Gaizka Eguzkitza

Zer deritzozu betiko ipuin bati buelta emateari? Berritzailea da?

Berritzailea izatea oso zaila da. Lehen, aktoreek eszenatokian biluzik gelditzen baginen, benetan berritzailea zen, baina gaur egun... Antzezlan honetan Txanogorritxuren betiko ipuina aitzakia bat baino ez da, egileak kontatu nahi duen istorioa kontatzeko.

Zein paper jokatzan duzu zuk?

Komedia musikala da eta pertsonaiak oso parodikoak dira. Ni Otsoatarren aita naiz, Jose Mari. Oso morroi desatsegina eta ustela da. Berarekin ez zinateke inondik inora joango trago bat hartzera. Hala ere, aldi berean badu bere xarma, eta azkenean jendeak maite du.

Antzezlana vaudevillea da. Hori aktoreentzat ere oso dibertigarria izango da, ezta?

Bai, bakoitzak mila pertsonaia antzeztu dituelako. Gainera, pertsonaiak guandik oso urrun daude, eta horrek aktore-joko asko egitera behartzen gaitu. Antzezlana honetan garrantzitsua ez da zer kontatzen den, zelan kontatzen den baizik.

Musikala izateak ahalegin berezia eskatu dizu?

"Txanogorritxuren ipuina aitzakia bat baino ez da, egileak kontatu nahi duen istorioa kontatzeko"

MIKEL LOSADA | aktorea

Galder Pérez egileak buelta eman dio *Txanogorritxu* betiko ipuinari eta *Caperucita Feroz* antzezlana (Glu glu Produktzioak) idatzi du. Martxoan, Sondikan izan dugu ikusgai, eta AIKOR! aldizkariak Mikel Losadarekin, aktoreetako batekin, egin du berba. Mikelek ibilbide luzea du telebistan, antzerkian eta zineman egina, eta horren guztiaren berri eman digu.



Lzpilen
PARAFARMAZIA BELAR-DENDA
Sabino Arana, 3. lorra - 48150 SONDICA (Bizkaia)
94 655 80 00 - 689 99 88 43 - lzpilen@gmail.com

Sabin Askolizaga
Aseguru agentea
Allianz
609 475 746
Mibone, 6. beheko
48150 Sondika-Bizkaia
T.: 94 453 18 07
Faxa: 94 453 60 27

yedra floristas
Mikel Zarate, 2 - 48150 Sondika - Bizkaia
Telefonoa: 94 453 14 57 - yedrainterflora@hotmail.com



*“Publikoak barrezka
ematen du antzezlan
osoan zehar”*

Ni ez naiz musikaleko aktore bat, ez naiz dantzari edo abeslari fina, eta ahal dudana egiten saiatzen naiz. Beraz, bai, erronka txiki bat izan da.

Sondika bezalako aretoetan jokatzea desberdina da?

Ez. Guk berdin-berdin jokatzen dugu areto handienetan zein txikienetan. Guk normalean publikoa ikusten dugu, eta gainera antzezlan honetan publikoaren gainean dauden argiak piztu egiten dira. *Caperucita feroz* ikustera datorren jendeak barrezka ematen du antzezlan osoan zehar, hasieratik bukaerara arte. Beraz, gu normalean oso gustura gaude.

Gaztelaniaz eta euskaraz egin duzu lan. Zein nahiago duzu?

Berdin dit, bietan eroso nago-eta. Bizkaitarra naiz eta batez ere hasieran bizkaitarrez egin nahiago nuen, baina denboraren poderioz neure batua hobetu dut eta gaur egun berdin dit, eszenatikian bizkaiera zein batua menperatzen dut-eta.

Zineetan gero eta film gehiago daude euskaraz. Badirudi apurka-apurka zinean ere normalizatu egiten dela euskara...

Bai, zorionez, gero eta film gehiago daude euskaraz, eta gero eta baliabide gehiago dute filmek. Bazen garaia, bai horixe!

Zertan zabilta gaur egun?

Proiektu batzuetan nabil murgilduta. *El sueño de una noche de verano* antzezlanean; *Historia casi de mi vida* antzezlanean, Ramón Barearekin, Blas de Oteroren jaiotzearen mendeurrena dela-eta; pelikula batean ere bai... Ondo nago, ezin naiz kexatu!

Aktorea, amari esker

Txikitan Mikelek ez zuen aktorea izan nahi, “ezta burutik pasatu ere”. “Amak ikastaro batean sartu ninduen. Gaztetan ikasle txarra izan nintzen eta amak pentsatu zuen testuak buruz ikastea eta diziplina oso komenigarriak izango lirakeela niretzat. Jolasa izango balitz moduan hasi nintzen, eta jolasten eta jolasten, hemen nago. Eta aktorea naiz”, esan digu ermuarrak. Mikelek ibilbide luzea du zineman, antzerkian eta telebistan, baina bere lanik bereziena *Kutsidazu bidea Ixabel* filma da. “Nire lehenengo protagonista izan zen, oso pertsonaia polita, publikoari ere gustatu zitzaion...”

Mikelen ustez, antzerkia beti da go krisian, batez ere Gobernuak antzerkiari BEZaren % 21 ezarri zionetik. “Udalek ez dute lehen beste antzezlan kontratatzen, eta apustuak askoz ziurragoak dira, antzokia bete-

tzen dutenak. Hau da, konpainia edo aktore famatuak dituzten antzezlanak baino ez dituzte programatzen. Horrek esan nahi du aktore gazteek edo konpainia hasiberriek aukera gutxiago dutela”. Horrek eragina izan du aktoreengan, lehen baino antzezlan gehiagotan lan egin behar dutelako.

Laster (edo) gobernu berri bat osatuko da Estatuan, eta Mikelek uste du BEZ-aren % 21eko neurria bertan behera geldituko dela. “Neurria zigorra izan zen, zinemagintzako jendeak 2003an gerraren kontrako kanpaina egiteagatik. Baina neurria oso kaltegarria da. Azken batean aktoreok langileak gara eta geuk ere kotizatzen dugu Gizarte Segurantzari, eta lanik ez badugu, ezin dugu kotizatu. Era batean ala bestean, guk aurrera egiten dugu. Aktorea naiz eta horretatik bizi naiz, beraz, pozik”.

Enaitz
TABERNA

Ogitartekoak
Anoak
Plater konbinatuak

94 455 42 15
Garaioitza, 74
48196 Lezama

TABERNA
GAZTEDI

Eguneko menuak
Ospakizunak

Aretxalde, 141 - 48196 LEZAMA
944554422 - gazteditaberna@gmail.com

KIMA
Landarak

LANDARE APAINGARRIA

Gaitolza 59 • Tel: 94 455 51 00 • Fax: 94 455 61 77
48196 LEZAMA (BIZKAIA)

t: Gaizka Eguzkitza / a: G.M.

2012an, parrandan zegoela lagun batek proposatu zion Goiznabar Monclúsi (Lezama, 1986) berarekin Indiara bizikletaz joateko, eta lezamarrak erantzun zion Indiara joan beharrean, zergatik ez mundu osora. Eta horrela jarri zuten Biziklautak proiektuaren hazia. Abenturan Javier Escudero eta Hodei Orueta ere sartu ziren. Gaztetan, Goiznabar apur bat "gal-duta" zegoen, ez zekien zer egin. "Ikus-entzuneko modulua ikasi eta gero hasi nintzen topatzen nire bidea. Artista-kutsua beti izan dut".

Goiznabarrek, Javik eta Hodeik 2013ko uztailaren 6an eman zioten hasiera abenturari, Guggenheim Bilbao museoan. Hasierako aurrekontua 20.000 eurokoa zen eta, besteak beste, kamara, arropa eta ordenagailu bat erosi zituzten. "Bataz bestez janariak bost euro balio zuen egunean, eta lo egiteko, edo ahal genuen lekuan, basamortuan edo basoan... egiten genuen; edo bestela, *Coach surfing* edo *Warm showers* sareen bidez musutruk egiten genuen lo ezezagunen etxeetan".

Talde Bilbotik Frantziara abiatu zen, gero Italiara eta Balkanetatik Turkiaraino. Bidean, Goiznabarrek min hartu zuen be-lanean eta Bilbora itzuli behar izan zuen ebakuntza egiteko. Javik eta Hodeik aurrera egin zuten eta Turkiatik Iranera eta Indiara joan ziren. Bost hilabete beranduago, 2014ko apirilean, Goiznabarrek

Lezamar ausarta

GOIZNABAR MOCLÚS | abenturazalea

Goiznabar ezin da geldirik egon. Agian horregatik sartu zen Biziklautak proiektuan lagun birekin batera. Abentura handia izan zen hori. Izan ere, gazte lezamarrak urte bi eman zituen bizikletaz munduari bira ematen. Gaur egun Arte Ederretako karrera bukatu nahi du eta, ostean, Afrikara eramango duen beste abentura batean murgilduko da.

*"Gure saririk handiena
abentura honetan
parte-hartzeko aukera
eduki izana izan da"*

bat egin zuen eurekin Indian. Nepal bisitatu zuten elkarrekin, baina geroago geldialdi txiki bat egin zuten Kanbodian eta Vietnamen, bertan turismoa lagunekin eta senideekin egiteko. Bakoitza bere kabuz.

Irailean txirrindulariak berrir batu ziren eta Asiako hego-ekialdetik ibili ziren, baina Tailandian taldea banandu egin

zen betiko. "Nik arazoak izan nituen Hodeirekin eta dirua bukatzeaz zegoen. Azkenean, Tailandian gelditu zen Hodei, eta Javi eta biok Australiara joan ginen dirua irabaztera". Diru nahikoa lortu zuten, bikotea hegazkinez joan zen Estatu Batuetara. "Kostalde biak baino ez genituen ezagutu: alde batetik, Los Angeles, San Frantzisko eta Las Vegas eta bestetik, Washington eta New York. Kostalde bate-tik bestera hegazkinez joan ginen". Estatu Batuetatik Bartzelonara ere hegazkinez joan ziren. "Argi genuen Bilbora bizikletaz heldu behar ginela. Bederatzi egun eman genituen bidean eta azkenean, 2015eko uztailaren 4an, etxera heltzea lortu genuen".

Bidaian arazo txiki batzuk izan zituzten arren, Goiznabarrek oso ikuspuntu





baikorra du. "Askatasun itzela duzu horrelako abentura batean. Ez duzu erlojurik, momentu bakoitzean erabakitzen duzu nora joan, noiz... Nahi duzuna egin ahal duzu. Hori izugarria da. Bidean hotz eta bero izan gara, momentu onak eta txarrak bizi izan ditugu, baina hor dago koska! Horretan datza abentura. Proiektu hau ez dago edonoren eskura eta, horregatik, gure saririk handiena abentura honetan parte-hartzeko aukera eduki izana izan da".

Iran

Abenturazaleak ez dira Txina, Afrika edo Hegoamerikatik ibili, baina Goiznabarri amorru gehien eman diona Iran bisitatu ez izana izan da. "Min hartuta ibili nintzen ezin izan nintzen bertan egon.

Iranek oso publizitate txarra dauka, baina bertako jendea oso jatorra da eta beti agertzen da laguntzeko prest. Hori esan didate kideek. Egunen batean Iranera joango naiz, bai horixe!". Iran gomendatu digu Goiznabarrek, baina beste leku batzuk, aldiz, ez zitzaizkion batere gustatu. "Ez naiz New Yorkera inoiz itzuliko (kar, kar), jende gehiegi dagoelako. Eta Vietnamian gauza antzeko bat gertatzen zaio, oso

masifikatuta dago eta dena dago turismoari begira".

Gaur egun, Goiznabar Arte Ederrak dabil ikasten eta datorren urteko otsaile-rako bukatuko du. Gainera, taberna batean egiten du lan Bilbon. "Gurasoekin bizi naiz Lezaman; lana Bilbon daukat; eta ikasketak, Leioan. Beraz, leku batetik bestera nabil egunero. Ezin naiz geldirik egon eta oso abenturazalea naiz. Gauza bat bukatu baino lehen hurrengo prestatzen hasten naiz". Karrera amaitzea da bere hurrengo proiektua, eta gero gerokoa. "Ez daukat argi: hemen lanik ez badago, agian Hegoamerikara joango naiz. Edo agian oposaketaren bat prestatu".

Era batean edo bestean, Goiznabarrek abentura gehiago bizitzeko gogoia dauka. "Egunen batean Hegoamerika bisitatu nahi dut. Eta beste abentura bat dut buruan. Izan ere, Kataluniako lagun batek motorrez egin nahi dio munduari bira eta eskatu dit laguntzeko. Beraz, 2017ko udaberrian etapa batzuetan joango naiz berarekin, dena grabatzeko". Horrela, Goiznabarrek Afrika ezagutuko du. Goiznabar ez da beldur, lezamar ausarta da.



"Atsedunik onena, zure
bigarren etxebizitzan ere bai"

**Delux lo egin,
zoriontsu esnatu.**

SUITE DELUX
MARKA ESCLUSIBOAK, ATREGENERAKO

SUITE DELUX
.com

DERIO | LEIOA
Derio Familiaren
041516147

La Alameda, 40
041310516

Hondakin organikoak zaborra al dira?

Hondakin organikoak zaborra dira, tapa griseko edukiontzi berdera botatzen baditugu. Edukiontzi marroira edo autokonpostagailura botatzen baditugu, berriz, baliabide baliotsuak dira. Horixe da birziklatzearen magia. Hondakin organikoak hiri-hondakinen % 40 dira; naturalki deskonposatzen dira, eta eraldatu eta beste gai organiko mota bat bihur daitezke, eta lurra aberastu.



Nola aprobeatza ditzakegu hondakin horiek? Pisu batean bizi bazarete, gure kaleetan dauden edukiontzi marroia erabiliz; eta lorategi bat edo baratze bat baduzue, autokonpostatuz. Mankomunitateak, ekintza horietako edozein doan egiteko aukera eskaintzen dizue. Edukiontzi marroia aukeratzen duzuenok kartel bat topatuko duzue zuen atarian, Aste Santua igaro ondoren. Kartel horretan idatzi beharko dituzue zuen datuak, eta etxera eramango dizuegu konposta egiteko kita. Zuen datuak eman nahi ez badituzue, leku hauetan jaso ahal izango duzue edukiontzi marroiaren kita: Kultur Birikan (Derio), Lezamako, Loiuko eta Zamudioko Udaletxeetan eta Larrabetzuko eta Sondikako liburutegietan.

Edukiontzi marroia erabiltzeko materiala etxera eramango dugu

Kit horrek honako hauek ditu: 10 litroko edukiera duen ontzi bat; poltsa konpostagarriak; zein hondakin utzi daitezkeen eta zein ez azaltzen duen eranskailu bat; txartel bat; eta giltza bat. Giltza edukiontzia irekitzeko da; horrela, saihestu egingo da beste pertsona batzuek beste edukiontzi batzuetara bota behar diren hondakinak bertan uztea. Oso garrantzi-

tsua da hondakinak poltsa konpostagarrietan bakarrik botatzea; ez dira inoiz plastikozko poltsetan bota behar, horiek biodegradagarriak izan arren. Hondakin ezegokiak eta poltsa ez konpostagarriak botatzeak zapuztu egin dezake edukiontzia zuzen erabiltzen dutenen lana.

Poltsa konpostagarriak doan lor daitezke egitasmoari atxikitako saltokietan. Erraz antzemango dituzue zeintzuk diren, edukiontzi marroi baten eranskailua izango baitute ikusteko moduan. Edukiontzi marroiaren erabiltzaile gisa gaitzen zaituzten txartela erakutsi beharko duzue, eta poltsa konpostagarriak eskatu. Dagoeneko edukiontzi marroia erabiltzen baduzue baina txartelik ez baduzue edo giltza galdu baduzue, kita entregatzen



Txorierriko ikastetxe guztiek hartu dute parte konpostejari buruzko kanpainan

den lekuetan edo Mankomunitatean eskatu ahal izango dituzue. Zamudioko bizi-lagunek errazagoa izango duzue: txartel horren orde, herritarren txartela erabiliko duzue. Giltza berak edukiontzia irekitzeko ere balio du; ez da beste giltzarik behar.

Autokonpostaren alde egingo duzuenok, eskainiko ditugun bi tailerretako batean eman ahal izango duzue izena. Saio horietan prestakuntza labur bat jasoko duzue, bai eta honako material hau ere: 340 litroko autokonpostagailu bat; aireztagailu bat; azeleragailu bat; eta konposta egiteko moduari buruzko eskuliburu bat. Sortzen zaizkizuen zalantzak tailerra dinamizatuko duen teknikariari galdetu ahal izango dizkiozue. Idatzi bat sinatu beharko duzue soilik, eta dokumentu horretan hitzemango duzue materiala erabiliko duzuela, eta autokonpostagailura bota dituzuen hondakinen kantitateari buruzko datuak helaraziko dizkiguzuela urtearen amaieran.

Ez usainik, ez kutsadurarik

Autokonposta egitea oso erraza da; galdetu ohitura horretan esperientzia duen edozein bizilaguni, eta konbentzitu egingo zaituzte. Aipatuko dizuete nekez sortzen duela zaborra eta ez duela usainik; hondakin organikoak sortzen diren lekuan bertan geratzen direla, eta horrela, garraioa saihesten dela eta gutxiago kutsatzen dela. Gainera, ez dira tratamendugastuak sortzen eta lorategirako edo baratzerako ongarria lortzen da.

Aste Santuaren ondoren hasiko gara publizitatea etxeetan banatzen, bosgarren edukiontzia edo autokonpostagailua erabiltzeko izena emateko.

Txorierriko ikastetxeetako ikasleek aurrea hartu dute. Zamudioko, Sondikako, Lezamako, Larrabetzuko eta Derioko ikastetxeetako eta institutuko 1.765 ikasleek gaian aditua den pertsona baten bisita izan dute, eta ikasgeletan gai hori landu dute otsailean eta martxoan. Hondakin



Informazio gehiago

–info@txorierrikonposta.com
–944540350

Aurreko urteetan bezala, kanpaina honek Bizkaiko Foru Aldundiaren diru-laguntza jaso du.

organikoak jasotzeko bi aukerak azaldu ondoren, autokonposta egiteko eta edukiontzi marroia erabiltzeko aukera eskaini diegu, ikastetxean bertan nahiz etxeetan sortzen dituzten hondakinetarako. Ikastetxean eman zitzairen txartel bat betez

eman dute izena, eta materiala emango zaie, gainerako bizilagunei bezala, etxera bidalita edo gurasoak autokonpostari buruzko tailerrera joaten direnean.

Hondakin mota horiek sortzen dituen negozioren bat baldin baduzu Txorierrin, zuk ere parte har dezakezu. Jarri gurekin harremanetan, eta nola parte har dezakezun esango dizugu.

Ingurumena zaintzean gutako bakoitzaren egitekoa funtsezkoa da; hondakin gutxiago sortu, bereizi eta zuzen ontziratut behar ditugu. Lor dezagun hondakinen balantza oso desorekatuta geratzea, gaitako bilketaren alde eta multzokako bilketaren kalterako.

ANIMATU ETA PARTE HARTU!

"Txutxu-mutxu bisuala gustetan jat"

ENERITZ AMONDARAIN |

ilustratzailea eta diseinatzaile grafikoa

Berrogei urteko derioztar honek holan definitzen dau bere burua: saiatua, esparru askotan ibilteko gauza dan artista eta geldituezina. Bere curriculumaren aurkezpen gutunean adierazoten dauan moduan, eskuz egindako trazua zalea da, artaziz ebagi eta kolaz itsastearen zalea. Mahai gaine, aldi berean, hamaika proiektu izatea gustetan jako, eta guztiei gogo handiz heltzen deuse.



t/a: Itxaso Marina eta E.A.

Zure lanetariko lau Derion bertan dagoz ikusgai. "Pelotari", frontoian; "Agurra", herrirako sarrerako errotondan; mural bat, kiroldegian; eta beste mural bat, jatetxe ezagun baten. Harro egoteko moduan, ezta?

Bai. Herrirako egiten dozun lana da, herritarrentzako; ikusi daien eta estimau daien. Harro nago. Baina, egia esateko, denporeak aurrera egin ahala, ohitu egiten zara. Halanda be, lanok ikusten dodazanean, askotan gogoratzen naz aurretik egin behar izan dan lanagaz, prozesuagaz...

Azaldu apur bat lan horreek, mese-dez.

"Pelotari" karrera bukaerarako egin neban proiektua da. Beste herri bateko pelotalekurako proiektua izan zan, baina, gero, euki eban emaitza ona ikusita, herrian aurkeztera animau nintzan. Udalak baietz esan eban, eta bertoko pelotalekuaren ezaugarrietara egokitu neban. Burdinazko 15 figura dira eta hareetako bat emakume bat da. Figura tridimentsionalak dira, koloredunak, eta pelota modalitate guztiak euki nebazan kontuan hareek diseinetako orduan: palea, zesta-puntea... Pelotarien mobimendua eta energia adierazo gura nebazan figuren bidez. Aurretik figuren maketak egin nebazan alantze... Errementari batzuk kontratau behar izan nebazan soldadurak-eta egiteko, baina figurak garraiatzeko eta ipinteko... familia osoa ibili zan



lanean (kar, kar). Uste dot laster barrituko dala.

Beste hirurak enkarguz egin dozuz, ezta?

Halan da, bai. Jatetxerako zein kiroldegirako muralak enkarguak dira, leku hareetako arduradunek halan eskatuta. Eta "Agurra" egiteko Udalak eskatu euskun. Lagun bategaz egin neban, Idoia Zuloagagaz. Eskultorea dagoan lekua herrira sartu zein herritik urteteko lekua da, eta otu jakun ondoetorria emoteko zein agur esateko baliagarria zan zerbait egitea, agur hitzak daukan esangura bikotxa kontuan hartuta. Zirriborro batzuen ostean, errotondan ikusi zeinkien eskultorea atera zan. Hiru panpina dira

eta bakoitzak idea bat islatzen dau: behekoak, industrializazioa; erdikoak, natura; eta hirugarrenak, askatasuna eta pakea.

Zein lanagaz zagoz harroen?

"Pelotari" lanagaz, lan horretan inplikazio handiagoa euki dotalako eta goitik behera nire estiloa daukalako. Esan moduan, Unibersidadean egin neban, nik neuk gura izan neban moduan, eta ez beste inor pozik egoteko.

Aitatutakoez aparte, beste proiektu batzuetan ibili zara. Esate baterako, "Vacas-Behiak", Bilboko kale erakusketan; ipuin bat ilustratu dozu; logotipo eta kartel lehiaketetan parte hartu eta hareetako batzuk irabazi egin dozuz... Zein azpimarratuko zenduke?

en✓iser

Kale garbiketa | Hondakinen bilketa eta garraioa | Ur eta estolda sareen mantentze lanak | Hiri-altzarien mantentze lanak | Lorezaintza zerbitzuak | Eraikin eta lokalen garbiketa | Hondartzen garbiketa zerbitzuak | Garbiguneen kudeaketa eta mantentze lanak | Lurzoruen deskontaminazio lanak | Ingurumen-aholkularitza | Beste zerbitzu batzuetarako, galdetu.

Astintze kalea, 6-A, 1. solairua, 48.340 Derio

TEL. 94 424 38 34



**SARRIKOLA
OGITEGIA**

Euskal pastela
Baserriko ogia
Bizkotxoak
Hainbat tarta



Sarrikola, z/g Larrabetzu
Tel.: 94 455 83 37
619 78 58 84



Zuk aitatu dozun ipuina, azkenean plazaratu ez dana, eta klasekide bategaz Marks & Spencer saltokiek antolatutako lehiaketa batera aurkeztu genduan murala, oraindino Unibersidadean gengozala. Irabazi egin genduan. Hamabost metroko luzera eta bi metroko garaierako murala izan zan, eta hilabeteak pasau genduzan nire osaba-izekoen etxean margotzen. Gaia "familia" izan zan, eta gogoratzen dot familiako argazkiak, bazkarietan eta ospakizunetan egiten diran argazkiak, hartu eta muralera eroaten genduzala, lanari estilo kubistea emonez.

Eta zein da buru-hausterik handiena ekarri deusuna?

Ordu pilo bat sartu behar izan neban, ipuina ilustrerako. Jente gehiegi gengozan erabagiak hartzeko, eta gehiegiren artean ipini behar ginan ados. Etenbako aldaketak egin... Apur bat frustragarria izan zan. Eta "Agurra" eskultorea, jakina. Alderdi asko hartu behar izan genduzan kontuan hori diseinetako orduan, eta detaileak arretaz zaindu. Izan be, beste batzuen artean, ziurtatu behar da eskultorea ez dala eroriko eta bere lekuan luze iraungo daukela. Halan, ingeniari bat kontratau behar izan genduan, neurketak egin eizan, haizearen erresistentzia aztertzeko... Oso segurtasun-neurri zorrotzak daukaz. Metro bat zabal, 1,85 metro luze eta 6 metro garai dan eskultorea da. Bur-

dinazko estruktura dauka eta *foam*, beira-zuntza eta poliester-erretxinaz gaineztatuta dago.

Arte Ederrak ikasi eta Diseinu Grafikoan espezializau zinan. Zein izan da zure lan ibilpidea?

Diseinatzaile moduan egin dot lan inprimategietan, enpresa batzuetako marketin sailean ibili naz, sakeleko telefonoetarako zorroak diseinaten, enpresearen aldizkaria maketaten, webgunea hor-

nitzen, argazkiak... Proiektu pertsonalak eta lana aldi berean garatu ahal izan dot.

Arte Ederretako ikasleak hainbat diziplinatan gaitzen dira, eta zu diziplina horetan guztietan, edo ia guztietan, ibiltzen zara: diseinuan, eskulturan, pinturan... Baina zein guren?

Egia da ilustratea asko gustetan jatala, baina ni pozik baino pozago nago edozein arlotan. Edozein diziplinatan edo

Eten barik bilakaeran dabilen mundu bat

Diseinu grafikoan espezializatzea erabagi eban, "aukera gehiago eskaintzen zituan esparrua zalako: ilustrazioak egin leitekez, liburuak maketau, bideoak grabau, iragarki laburrak, logotipoak diseinatu..." Erasmus programearen bidez, beka bat lortu eta Orleansko Ikusmen Arteen Institutuan ibili zan lau hilabete. "Oso esperientzia aberasgarria izan zan maila pertsonalean zein lan arloan: jente barria ezagutu neban, lan egiteko era barriak..."

Azaldu deuskun moduan, diseinu mundua asko aldatu da berak lehen urratsak emon zituanetik hona. "Unibersidadean ia ez genduan ordenagailurik erabiltzen; dana eskuz egiten genduan. Eta, orain, oster, arkatza hartzea asko kostaten jake ikasleei. Burmuina be landu behar dogula ahazten jaku". Mundu zorrotzagoa be bihurtu da. "Konpetentzia handia dago eta ordu pilo bat sartu behar dira. Gero eta gehiago exijitzen da eta estres handia pairatzen da. Gainera, eten barik bilakaeran dabilen mundu bat da,



diziplina gehienetan ibilteko gauza naza-
la uste dot, eta pozik nago egiten dodan
guztiaz. Eskolea emotea be izugarri
gustetan jat.

**Izan be, irakasle zabilta gaur
egun. Zelan ailegau zinan hezkuntza
mundura?**

Enpresa pribaduan lan egiteak erre-
gin ninduan akabuan, eta orain dala ur-
te bi erabagi neban hezkuntzan saiatzea.
Arte Grafikoak irakasten dituen Lanbide

eta beti adi egon behar jake azken pro-
gramei”.

Nasaiago dabil irakaskuntzan. eta,
berak be gauza barriak ikasteko asmoz,
Arteterapia ikastaro baten emon dau
izena. “Hitza eta idaztea ez diran beste
bide batzuen bidez adierazoten ikasten
dugu. Esate baterako, dantza, musika,
plastika, marrazketa... bidez. Oso ikas-
taro bizia da eta zure oinarriak birpen-
tsarazoten deutsuz. Zer pentsaua emo-
ten deutsu, batez be zure sormen-pro-
zesuari jagokonez. Han ikasitakoa ikas-
leakaz egiten saiatuko naz”. Eta zer egi-
ten dau Eneritzek sortzen ez dabilene-
an? “Tarte gitxi daukat horretarako,
baina nire motxilea beti dago prest.
Korrika eta uger egitea gustetan jat”.

Heziketako ikastetxe baten ibili naz; irudi
eta soinuaren eskola be emon dot; eta
gaur egun tailer-maisu nabil, eskulanak-
eta irakasten. Eskolea Bigarren Hezkun-
tzako ikasleei emoten deutset eta nik be
asko ikasten dot. Pazientzia handia dau-
kat eta hori birtute handia da eskolea
emoteko orduan. Irakaskuntzan jarraitze-
ko asmoa daukat, eta proiektu pertsona-
lik ateraten bada, horreei be heldu.

Baten bat buruan?

Momentu honetan ez, baina zerbait
etorriko da, ziur. Edozein idea eta proiektu-
tarako nago prest.

**Artistek aurre egin behar deutsa-
zuen arazo nagusia finantzazinarik
eza izango dala pentsatzen dogu...**

Bai. Murrizketa handiak egon dira
esparru askotan, eta kulturea eta artea
beti hirugarren edo laugarren mailan
ixten dira. Alderdi ekonomikoari errepa-
raten jake, eta ez lanaren kalidadeari edo
artistak egindako lanari eta sartutako
orduei.

**Sormen handiko persona zara,
nondik, nogandik... hartzen dozu ins-
pirazioa?**

Gustetan jat han eta hemen kuxkuxe-
an ibiltea, ideak edonondik atera leiteke-
zalako: argazkietatik, kalean ikusi dozun
kartel batetik, kaleko lanetatik, jentearen
erropatik, egunkarietatik, dekorazino al-
dizkarietatik, tabernetako dekorazinetik,

*“Pelotari” lanagaz
nago harroen,
goitik behera nire
estiloa daukalako”*

*“Pazientzia handia
daukat eta hori
birtute handia
da eskolea
emoteko orduan”*

dendetatik... Txutxu-mutxu bisuala guste-
tan jat (kar, kar).

**Eta zein artistarengan ipinten dozu
arrotea?**

Ñiko mexikarraren lana gustetan jat
pilo bat, Picasso, Serra eskultorea, Cal-
der... Hiperrealismoa ez jat asko gustetan;
gurago dot abstraktua: zuek eta biok
artelan bera ikusi, baina bakotxak bere
ondorioa atera eta ondorio horreek guz-
tiak baliagarriak izatea. Ehundurak guste-
tan jat, suberrealismoa... beno, klasikoa
izan ezik, dana (kar, kar).

t/a: Gaizka Eguzkitza

"Matrizeria ikasi neban, baina gaztetan Athleticen behar egiteko aukerea sortu jatan". Ia kasualidadez hasi zan Pedro Luis Dañobeitia belarra jagoten. "Belarra naturala eta artifizialaren inguruko ikastaro bat egin neban Espainiako Futbol Federazioan, baina batez be nire kabuz ikasi dot zelan zaindu behar dan belarra. Ni 1984an sartu nintzan Athleticen, eta garai hatan ez zegoan materialik. Beraz, liburuak hasi nintzen irakurtzen, topatzen... Gaur egun, nire etxera joanez gero, liburu gehienak dira belarrari buruzkoak (kar, kar)".

Heziketa berezi barik, ekinaren ekinenez, Pedro Luis aditu egin da, eta gaur egun oso gitxi dago munduan. Lezamarrak bere eguneroko beharraren barri emon deusku. "Belarra mozteaz eta markak egiteaz ganera, batez be, entrenamenduetan hondatzen dan belarra konpontzen dot". Eguneroko lanak apur bat aspertzen dau Pedro Luis, baina izugarri gustetan jako ikertzea. "Zelan hobetu, belarra aztertu, konponbideak topau.... Beti izan naz sortzailea eta gauza teknikoek botatzen deustez erronkak gustatzen jataz".

Belarra behar bezala jagoteko, hainbat alderdi hartu behar dira kontuan. "Abonatzea eta ureztatzea inportanteak dira, noski; azken batean, holan elikatzen dogu belarra". Baina beste batzuk be egon badagoz: esate baterako, gaixotasunak. "Futbol zelaietako belarra ez da

Futbolaren lorezaina

PEDRO LUIS DAÑOBEITIA | belar-zaintzailea

Bedarra eta lorak zaintzen dituana lorazaina da, baina futbol zelaietako bedarra zaintzeak espezializazino handiagoa eskatzen dau. Aditu gitxi dagoz arlo horretan, eta hareetako bat Pedro Luis Dañobeitia (1962) da. Lezamarrak eskarmentu handia dauka: urteak emon ditu Athleticen futbol zelaia zaintzen, eta gaur egun beste zelai batzuez arduratzen da. Horren inguruko liburu bat be emon dau argitara.

"Gaur egun, nire etxera joanez gero, liburu gehienak dira belarrari buruzkoak (kar, kar)"

naturala, edo berez sortutakoa: azpian harea, harriak eta drainatzea dagoz, eta horregatik belarrak dituan gaixotasunei aurre egin behar deutsezu". Era berean, garrantzitsua da belarrari atsedenaldiak emotea. "Jenteak garrantzi txikiagoa emoten deutso atsedenaldiari, baina zelaia egunero-egunero erabiltzen bada, egunero-egunero zapaltzen badabe, baldintza txarrak eukiko ditu".

Pedro Luisek 25 urte emon eban Athleticen. "Batez be Lezamako futbol zelaia zaintzen nebazan, eta urte batean baita San Mamesekoa be". Halanda be, gaur egun Enviser enpresan egiten dau behar. Horrek lorategiak-eta zaintzen dauz Txorierrin eta lezamarraren eskutik futbol-zelaia hasi ziran jagoten. Pedro Luisek eta beste lagun batek lau futbol-zelai zaintzen ditue: Loiu, Sondika, Zamudio eta Zornotzakoa.


Txorierrin Sondikako futbol zelaia zelaia zelaia kalidadeak ospe handia euki dau beti. "Horregatik, hain zuzen be, bada kalidade handikoa, atsedeen hartzen ixten deusielako. Belarra gutxi erabiltzen dabe: entrenamenduak eta ariketak belar artifizialeko zelaian egiten dira, eta bertan be jarduten dabe beheko mailetakoko taldeek.

Liburu bakarra munduan

Denporaren poderioz, Pedro Luisek material pilo bat batu dau belarra zaintzeari buruz. Eta horregatik erabagi eban 2013an *Footballgrasskeeper, los cuidados del césped en el futbol* liburu idaztea. "Liburu bakarra da munduan, ez dago ezta ingelesez be, nirea bezalako argitalpenik. Golfaren belarrari buruz asko idatzi da, baina futbolarenari buruz, ez, ordea. Nik hutsune hori bete dot". Liburu potoloa da, baina material pilo bat kanpoan gelditu zan. Pedro Luisek hainbat gai jorratzen ditu: drenajea, zelan jarri belarra

eta azpian dituan harea eta harriak, harri eta hare-motak....

Argitaletxe batzukaz berba egin ondoren, lezamarrak bere kabuz argitaratu eban liburu, eta online erosi ahal da, Punto rojo libros webgunean. Gaur egun barriro argitarau gura dau. "Argitaletxe batek kudeatzen badau, agian, ingelesez be plazaratu ahal da". Pedro Luisek asmo didaktikoa dau eta liburuaz gain, artikulua batzuk idatzi dauz *Greenkeeper* izeneko aldizkarian. Horretan golfada gai nagusia, baina Pedro Luisek futbola hartzen dau hizpide.





*Pedro Luisek lau futbol-
zelaia zaintzen ditu: Loiu,
Sondika, Zamudio
eta Zornotzakoa*

*Bere eritxiz, belar
artifizilak ez dau inoiz
naturala ordezkatu,
goi-mailako zelaietan
behintzat*

Belarrezko zelaia lehenengo taldeak baino ez dau erabilten, eta partidak aste birik behin jokatzeko”.

Pedro Luis belarra naturalean ez eze artifizialean be bada aditua. Bere eritxiz, belar artifizilak ez dau inoiz naturala ordezkatu, goi-mailako zelaietan behintzat. “Belar artifiziala be zaindu behar da: orraztu, ureztatu... Baina askoz merkeagoa da eta beheko mailetan oso erabilgarria da. Baina ezbardina da: botea diferentea da, zauri gehiago sortzen dira belar artifizialean... Eguraldi extremoetan edo dirurik ez dagoan lekuetan belar artifiziala ezarriko da, baina European eta goi-mailetan guztiek gurago dabe belar naturala”.

Egin zaitez AIKOR!lagun



Izen-abizenak: _____

Helbidea: _____

Telefonia: _____

e-posta: _____

IBAN+Bankuko zenbakiak: _____

Urteko kuota: _____

Aldizkaria jasotzen duzu? _____

Sinadura _____

30 euro _____ Beste bat _____

Orri hau helbide honetara bidali:

AIKOR! Aldizkaria

Aresti kalea 2, beheka - 48170 - Zamudio



15/1999 Lege Organikoari jarraituz, hau jakinarazten dizugu: formulario honetan sartzen dituzun datu pertsonalak fitxategi batean gordetako dira. Fitxategiaren erantzulea TOTODAN TXORRIERRIKO ELUSKARA ELKARTEEN FEDERAZIOA da eta datuok kudeatuko ditu. Kontrakoa esaten ez diguzun bitartean, zure datuak kudeatzeko balmena dugula ulertuko dugu. Dena dela, edozein momentutan datuok eskuratu, baliogabetu eta zuzendu ahaliko dituzu. Horetarako, helbide honetara jo beharko duzu: ARESTI KALEA 2-BEHEKA, 48170 ZAMUDIO (Bizkaia).

Agur, gure haurtzaroko piramideei



t/a: Gaizka Eguzkitza

Piramiderik famatuena Egipton dau eta duela 4.500 urte eraiki ziren. Hala ere, txikitan askoz garrantzitsuagoak ziren Artxandako jolas-parkearenak. 70etako eta 80etako Bizkaiko haurrek jolas-parkeko piramide erraldoi eta gorriak ikusten genituenean, urduritasuna eta ilusioa askatzen ziren gure barnean. Gure aurrean, mundu magikoa zabaltzen zen, animaliez eta punta-puntako atrakzioz josia. Guretzat parkea bakarra zen munduan, paradisua bezalakoa.

Parkea 1974ko irailaren 14an inauguratu zen Ganguren mendian, Txorierrri alboan, Galdakaon. Sustatzaileak Bankunión, Bilboko eta Bizkaiko Aurrezki Kutxak eta Madrilgo jolas-parkea izan ziren. Jabeek asmo handiak zituzten eta 515 milioi pezeta (3 milioi euro) inbertitu zuten. Gainera, urtean parkea 1,5 milioi lagunek bisitatzea espero zuten, baina usteak erdi ustel gelditu ziren laster. Izan ere, urterik onenean 450.000 lagun baino ez ziren parkean sartu.

Parkea martxan jarri zenean, Europako modernoenetariko bat zen eta Bizkai mailan aisialdirako erreferente handia bi-

*Parkea 1990etik dago
itxita eta bere itxura
negargarria da.
Aldundiak aurtan
botako du lurrera*


hurtu zen hasiera-hasieratik. Parkean denetariko atrakzioak zeuden, bai umeei, bai helduei zuzenduta: etxe magnetikoa, tiro-aretoa, tonbola, fantasiaren etxea, etxe sorgindua, zaldiko-maldikoa, haurrentzako motorrak, sorginaren trena, ohe elastikoak, mini-golfa, kart-zirkuitua, noria, errusiar mendia... Haietako batzuk zortzi piramide gorrik babesten zituzten, parkeko ikurrik nabarmenena. Era berean, txikienek amets egiteko aukera zuten parketik zebilen tren batean.

Atrakzioekin batera, parkeak ekipamendu oparoa zuen, gaur egun parke tematiko famatuek dituztenen modukoa: aparkalekuak, jatetxeak, kioskoa, diskoteka, berdeguneak, zoologiko txiki bat, iturri zibernetikoak, igerilekua... Baita 5.000

lagunentzako anfiteatroa ere. Garaiko artistarik handienek bertan eskaini zituzten kontzertuak: Hombres G, Miguel Bosé, Gloria Gaynor, Oskorri, Torrebruno, Mecano eta Parchis taldeak...

Apurka-apurka bisitarien kopurua gero eta txikiagoa izan zen. Parkea Bilboko hirigunetik urrun zegoen, eta bere kokapena, mendi erdian, ez zen batere atsegina. Errepidea ez zegoen baldintzarik onetan, eta askotan auto-ilarak sortzen ziren. Gainera, eguraldi txarrak umeen go-goa, eta batez ere gurasoena, apaltzen zuen. 1988an 120.000 lagun baino ez ziren parkera joan eta Bizkaiko Foru Aldundiak parkearen % 77 erosi zuen, 900.000 euroren truke. Parkea indarberritzen saiatu zen behin baino gehiagotan, baina azkenean, 1990ean, itxi egin zuten parkea.

Gaur egun itxita jarraitzen du eta itxura benetan negargarria da. Dena dago erabat abandonatuta, sastrakak jan ditu bideak eta atrakzioen arrastoa, eta oraindik zutik irauten duten metalezko egiturak herdoilez beteta daude eta erortzeko arrisku handia dago. Aldundiak iragarri du parkea aurtan botako duela lurrera. Beraz, agur esan beharko diogu geure haurtzaroren zati bati, piramide-forma duen horri.



TXORIERREKO UDAL EUSKALTEGIA

B2, C1 ETA C2 MAILAK EGIAZTATZEKO DEIALDIRAKO EGUTEGIA

- Matrikula zabalik
Apirilaren 7-14
- Entzumeneko eta irakurmeneko
probak euskaltegian
B2-C1 Mailatzaren 6-7
C2 Mailatzaren 3an
- Idazmeneko proba
Barakaldoko BEC-en
Mailatzaren 14an
- E-mailtzak
Ekainaren 16an
- Mintzameneko probak
Barakaldoko BEC-en
B2 Ekainaren 23-24-25
C1 Uztailaren 1-2
- E-mailtza orokorrak
Uztailaren 12an

* HEZKUNTZA, HIZKUNTZA
POLITIKA ETA KULTURA SAILAK
argitaratutako 2016ko otsailaren 22ko
ebazpenaren deialdiarako egutegia

Herriko Plaza, 3 / 48160 DERIO
Tel. 94 454 00 62 / Fax. 94 454 27 38
euskaltegia.txorierri@bizkaia.org

B1 MAILA EGIAZTATZEKO DEIALDIRAKO EGUTEGIA

- Matrikula zabalik
Apirilaren 7-14
- Mintzameneko probak
euskaltegian
Ekainaren 7-8-9
- Idazmeneko proba
euskaltegian
Ekainaren 13-14
- Irakurmeneko eta entzumeneko
probak euskaltegian
Ekainaren 22an
- E-mailtza orokorrak
Uztailaren 12an

a: Circuito Mundial Eternal Running

Antolakuntzatik adierazoz daben moduan, eta lerro honek idatzi orduko, 2.000 lagun inguruk emon dabe izena lasterketan. Hareekaz batera euren laguntzaileak eta senideak be etorriko dira, baita ikusleak be, eta horregaitik espero da oso jentetza handia batuko dala Loiu. "Egia esateko, kirol ekitaldi hau erronka bat da guretzat", esan deusku Josu Andoni Begoñak alkateak. "Antolakuntzaz batez be Udala eta *Eternal Running* egitasmoaren antolatzaileak ardurtzen gabiltz, baina herritarren laguntasuna be ezinbestekoa da, lasterketea behar moduan urten dadin. Halan, 50 herritar baino gehiago azaldu dira laguntzeko prest, eta, besteak beste, zeregin honek eukiko ditue: aparkalekuak, sarrerak eta urteerak, dortsalak banatzea, bidekurutzeak moztea..."

Munduko txoko guztietatik etorritako korrikalariek 10 kilometro egin beharko ditue Loiu lurretan atonduko dan zirkuitutik. Era berean, hainbat oztopo topauko ditue zirkuitu osoan zehar; esate baterako, lastoz betetako kamioiak, txirristak edo ekatz elektrikoa. Horretarako, hiru orduko epea eukiko dabe. Gai izango dira? Epe horren barruan helmugara ailegaten diranek garaituezin titulua jasoko

"Lokatza beteta dagozan zatiak sartuko dira, ibilpideari zaltasun eta emozino apur bat emoteko"

Runner garaituezinez beteko da Loiu

Apirilaren 10ean, *Eternal Running* lasterketea egingo da Loiu. Nazinoarteko izaerea daukan proba bat da eta parte-hartzaileek hainbat oztopori egin beharko deutsee aurre 10 kilometroan zehar.

dabe. "Ni neu ibili naz zirkuitu egokien bila. Azken asteotan Loiu landak, basoak eta pistak ikusi dodaz *in situ*. Leku ez-bardinak aztertu ostean, lokatza beteta dagozan zatiak be sartuko dira, ibilpideari zaltasun eta emozino apur bat emoteko. Ibilpidea herrigunear hasiko da, mendietako pistetatik pasau eta herrigunera itzuliko da. Baina ezin deusuet bidea ze-

hatz-mehatz azaldu, ipiniko diran oztopoakaz batera, sekretua dalako".

Zirkuituan zehar anoa-postuak ipiniko dira eta lasterketea amaitu ostean, bazkaria eskiniko da. Dutzak, komunak eta aldagelak be egongo dira pelotalekuan eta San Jose Artisaua ikastetxean. "Instalazio osagarriez gainera, Udalak txosna bat jarriko dau urteeran eta helmugan. Proba



amaitzen danean, 15:00etan, kontzertua egongo da, Five Direction taldearen es-
kutik". Eternal Running lasterketeak eza-
guna egingo dau Loiu mundu mailan, eta
ekonomia arloan be onurak ekarriko deu-
tsez loiuotarrei. "Bertora hurbilduko dan
jente kopuru handiak dirua itxiko dau
udalerrian, eta hori aurreikusteko datu
objektiboak daukaguz. Gainera, uste do-
gu egitasmoak Txorierriko gainerako
udalerrietan be eukiko dauala eragin po-
sitiboa, ziur asko, Bizkaitik kanpoko
parte-hartzaileek Txorierriko hoteletan
emongo dabelako gaua. Bazkaldu eta
afaldu be berton egingo dabe".

Ekitaldi izarra

Loiuko Udalak Udalerriko Kultur eta
Kirol Dinamizaziorako Bigarren Plan Es-
trategikoa abiau dau eta horren barruan
ekintza batzuk antolatzen ditue; esatera-
ko, putxera lehiaketa, ibilgailuen topeke-

"Bertora hurbilduko dan jente kopuru handiak dirua itxiko dau udalerrian"

tea eta Loiumendi lasterketea. Eternal
Running be plan estrategiko horren ba-
rruan kokatu dabe. "Beste ekitaldi bat
gehitu gura geunke, guztien artean izarra
izan leitekena. Eta horren aldeko apustua
egin dogu. Gure hautagaitzea aurkeztu
genduan eta aukeratu egin gaitue beste
honeekaz batera: Buenos Aires, Bogota,
Australia, Tanzania, Bartzelona, Madril,
Sevilla...". Azaldutakoaren arabera, laster-
ketearen arduradunek hainbat arrazoi-
rengaitik onartu eben Loiuko hautagai-
tzea, adibidez, udal gobernua jasanga-

rritasunaren eta ingurumenaren babese-
aren alde egindako apustuagaitik, herria-
ren kirol kultureagaitik edo halango ta-
mainuko ekitaldi bat hartzeko gaitasun
logistikoagaitik. "Gure udalerrri eder, txiki
eta apala mundu mailako beste hiri han-
dien ondoan jarrea harro egoteko modu-
koa da. Espero dogu ostalariek eta den-
dek bultzada berezia eukitea, eta bisita-
riek jakin dagiela, aireportua izateaz gai-
nera, Loiu udalerrri abegitsua eta bisiteta-
ko polita dala. Ederto baten pasetea opa
deutsegu loiuotarrei. Eta gozau daitezcan
ekitaldiaz, eta ulertu dagien halango
proba bat prestatzeak sortu leikezan era-
gozpenak". Loiuk lehenengo aldiz hartu-
ko dau aurten Eternal Running lasterke-
tea. Hurrengo urteetan be haren egoitzea
izatea zenbat arloren arabera izango da.
"Emaitzak aztertu eta Udal Gobernuak
erabagiko dau zer dan egokiena herrira-
ko".



Kakoak

—Eternal Running nazinoarteko las-
terketea da eta aurten **34 hitzordu**
ipini dira; Kolonbian, Tanzanian eta
Australian, tartean.

—**Loiun apirilaren 10ean** izango da
goizeko 11etan.

—Lasterketan **15 urtetik gorako**
edonork hartu leike parte.

—**Apirilaren 8ra arte** emon leiteke
izena eternalrunninginvencible.com
webgunearen bidez; Loiuko Udale-
txean (goizez); edo Loiuko liburute-
gian (arrastiz). Izena emoteak 26 euro
balio dau.

—**10 kilometroko zirkuitua** egin
beharko da, eta **80 oztopo** gainditu.
Horretarako, hiru ordu eukiko ditue
parte-hartzaileek.

—Anoa-postuak ipiniko dira ibilpide-
an zehar.

—**Ondo pasetako** lasterketea da;
lehia albo batera ixten da.

—Zirkuitua **mozorrotuta** egin leiteke.
Mozorrorik onenak saria eukiko dau.

—Helmugara ailegaten diran guztiek
garaituezin-titulua jasoko dabe.

—Lasterketea orain dala 15 urte egin
zan lehenengo aldiz, eta **munduan**
214.000 garaituezin baino gehiago
dagoz.

Nire Autocasion

**IMPORTAZIOA ETA
SALMENTA**



GERNIKAKO ARBOLA 10 (TRASERA) 48160 DERIO-BIZKAIA
Móvilak: 686 97 06 41 - 640 16 77 12
Telefona-Fax: 94 454 51 92
www.nireautocasion.com info@nireautocasion.com

TURREGOTTI
JATETXEA

Laurroeta etorbidea, 27
48180 Lolu-Bizkaia
T-Fax: 94 453 24 40
restauranteturregotti.com



Euskal Herriko bigarren parrila

t/a: Gaizka Eguzkitza

FUENTENE BERRIA ERRETEGIA

“Polita da irabaztea, baina ez diot horri garrantzi handirik ematen, egia esan. Horrelako txapelketak politak dira beste jatetxeetako lagunak ezagutzen dituzulako eta oihartzuna ematen diolako zure lanari, zure erretegiari. Baina besterik ez”. Urko Zarauza Fuentene Berria Erretegiaren sukaldaria eta jabea da. Plentziarrak umiltasunez hartu du bere erretegiak lortu duen esker ona. “Gure lan egiteko era erakustera joan ginen txapelketara eta horregatik hain zuzen ere gaude pozik”.

Euskal Herriko Parrila Lehiaketaren hirugarren edizioa Donostiako Alde Zaharrean egin zen azaroaren 26tik 29ra bitartean. Jakitea elkarteak –sukaldari gipuzkoarren elkartea eta txapelketaren antolatzailea– deitu zion Urkori lehiaketan parte hartzeko. “Nahiz eta eskarmentu handirik ez izan, gure ibilbidea badugu, eta elkartekoek ezagutzen gaituzte. Beraz, parrilen lehiaketan parte hartzera animatu gintuzten. Guk telebista eta irrati-saioetan hartu dugu parte, epaile izan gara sukaldaritza lehiaketa batzuetan...”. Fuentene berrikoek lehen-dabiziko aldiz hartu dute parte txapelketan.

Parte-hartzaileek txerri txuleta, abere larriaren txuleta eta zapoa prestatu behar zituzten lehiaketan. Azkenean

Jatetxe eta erretegi ederrak ditugu Euskal Herrian, baita Txorierrin ere. Gure sukaldari batzuek Michelin izarrak eta beste sari batzuk irabazi dituzte. Ohorezko zerrenda horretan beste kide bat dugu, Fuentene berria erretegiako Urko. Izan ere, Zamudioko jatetxe horrek bigarren postua lortu zuen Euskal Herriko Parrila Lehiaketan.

“Oso baldintza txarretan sartu ginen lehian; hala eta guztiz ere, maila ona erakutsi genuen”

emaitza ona lortu arren, txarto hasi zen dena Urkorentzat. “Oso berandu heldu ginen txapelketara, Donostiara, gure jate-txean ere berandu bukatu genuelako. Berandu heldu ginenez, oso leku txarra utzi ziguten parrilan, txarrena ziur asko. Eta borobiltzeko, hotz handia eta eguraldia oso kaskarra egin zuen. Beraz, oso baldintza txarretan sartu ginen lehian; hala eta guztiz ere, maila ona erakutsi genuen eta bigarren postuan bukatu ahal izan genuen txapelketa”.

“Parrilak usaina ekartzen dio janariari eta hori zartagin batek ezin du eman”

Sukaldaritza lehiaketak Euskal Herrian beti dira gogorak sukaldarien maila oso ona delako. Parrilena ez zen salbuespena izan, ez horixe! “Lehiakideen artean denetarik zegoen, baina maila altua zen: eskarmentu handiko erretegiak, Michelin izarren bat duten jatetxeak... Eta haien artean gu geu! (kar, kar). Erabat ezezagunak ginen eta hasieran ez ziguten jaramon handirik egin. Hala ere, lanean hasi ginenean, beste era batean tratatu gintuzten, errespetu handiagoarekin”.

Erretegi gaztea

Urkok duela gutxi, 2014ko apirilean, jarri zuen martxan Fuentene Berria erretegia, Lekunbiz auzoan, Zamudion. Bere leloak esaten duenez, lehorreko eta itsasoko baserria da, hau da, bere espezialitatea okela eta arraina da, baina txingarretan erreak. Bazkalorduan ohikoa da Urko parrilaren aurrean ikustea, aparkaleku zabalaren ondoan. Urkorekin batera, beste lau lagunek ere egiten dute lan erretegian.

Urkoren taldea pozik dago Txorierrin. Gogor eta ilusio handiz egiten

dute lan egunero, jatetxea aurrera eramateko. Hasiera gogorra izan zen. “Alde batetik, jatetxeak ez zuen ospe onik eta aurreko jabeek eta kudeatzaileek ez zuten baserria behar bezala zaindu. Bestetik, sartu ginenean aldaketa batzuk egin nahi izan genituen eta horrek denbora eskatzen du. Zorionez, kartak arrakasta izan zuen hasieratik eta horri esker, gero gure eskaintza zabaldu ahal izan dugu: eguneroko menua, menu bereziak, gosariak, jantoki pribatuak...”, esan digu Urkok.





Euskal Herriko txapelketan parte hartzeko, Urkok txartela irabazi behar izan zuen Bizkaiko txapelketan. Bizkaia mailan iaz egin zen lehendabiziko aldiz txapelketa, Getxon, ekainaren 13an. Han ere bigarren postuan gelditu zen Urko. "Irabazi behar izan genuen, gurea zelako platerik onena, baina tira..." Beraz, Euskal Herriko Txapelketan Gipuzkoako zein Bizkaiko lehenengo sukaldari biak sartu ziren lehian. Gainera, antolatzaileek Nafarroa, Araba eta Iparraldeko sukaldari batzuk

gonbidatu zituzten, baita Juan Manuel Garmendia iazko txapelduna ere.

"Parrilara, dena gozo"

Urkok txapelketan egindako lan txukunak agerian utzi du primeran lantzen duela parrila. Aditua da eta lehiaketak aukera ona eman digu berari parrilari buruz galdetzeko. "Parrilan edozein gauza jarri ahal da, okela, arraina, itsaskia, fruta.... Eta dena dago gozo. Parrilak usaina ekartzen dio janariari eta hori zartagin batek ezin

du eman. Txingarretatik ateratzen den kea da parrila bereizten duena. Bestalde, jankidearen gustuak erabakitzen du zelan egin janaria parrilan. Niri, esate baterako, okela bero gustatzen zait, baina beste batzuek apur bat hotz ateratzen dute parrilatik". Urkok esan digu hainbat alderdi hartu behar direla kontuan parrila gozoa prestatzeko: txingararak, parrila mota, okela zelan moztu... "Baina lehen-gaia goi-mailakoa bada, parrilan ere primerakoa izango da".

Konekta zaitez gurekin!

aikor!
Sanfermin abuztuak



Facebook:

aikor.txorierrikoaldizkaria



Twitter:

@AikorTxorierr



Webgunea:

www.aikor.com



Emakumeek ahots errimea dauki

MOREAK LEZAMAKO ALKARTEA

Lezamako emakumeen ahotsa herriko txoko eta esparru guztietara zabaltzea dau Moreak taldeak helburu eta premia. Holan, bada, gizon eta emakumeen arteko bardintasun erreala lortzeko helburua harturik, gogor ibiltzen dira lanean errespetau daitezcan emakume lezamarren eskubideak eta kontuan hartu daitezcan euren kezkak eta beharri-zanak. Taldekide batzuk izan doguz geugaz berbetan: Marisa, Karmele, Begoña eta Lurdes.



t/a: Itxaso Marina

EH Bilduk 2015eko otsailean bultzatu eban gune irekian dago taldearen abiapuntua. Emakumeen eremua lantzeko eta Udalaren politikan emakumeen ikuspegia sartzeko premia ikusi eben bertan. "Berba asko egiten da bardintasunaren inguruan, badagoz hainbat plan, instituzino..., baina, praktikan, gauza gitxi ailegaten da jentearengana. Kezkatuta gabilz gaiaz, eta horregaitik hasi ginan biltzen, Lezama emakumeen eremutik aktibatzen zer egin geinkean pentsetako".

Urtebete eskas daukan taldea da, baina gogoz ekin deusie lanari, eta landu beharreko hainbat esparru zehaztuta daukie daborduko. Halan, beharrezkotzat jo dabe herrian dagoen beste emakume taldeagaz (Laiak) eta Udaleko alderdiakaz batzea eta Emakumeen Kontseilua sor-

*Emakumeen Kontseilua
sortzea ezinbestekotzat
jo dabe, emakumeei
zuzendutako planak
osatu ahal izateko*

tzea, proposamenak hortik bideratzeko, eta emakumeei zuzendutako benetako planak osatu ahal izateko. Bardintasunaren Planari jarraipena egitea eta plana gauzatzea be garrantzitsutzat jo dabe. Era berean, emakumea arlo pribadutik publikora ateratea ezinbestekoa da, lezamarren ustez, eta, beste neurri batzuen artean, ahalduz tailerrak antolatzen asmoa daukie. "Heziketea behar dogu barne-barnean daukaguzan balio horre-

ek aldatzeko. Izan be, gizarte honek gauza konkretu batzuetarako prestatu gaitu, adibidez, zainketarako, eta hori ez da bidezkoa emakumeontzat. Pentsetan dogu gure autoestimua ez dala behar bestekoa, eta milaka gauza primeran egiten doguzan arren, geure buruari ez deusagula medailarik ipinten. Beti gagoz eremu pribaduan, eta publikoa, nahiz eta bikainak izan, beste batzuen esku ixten dogu".

Errebindikaten dabe emakumeek presentzia eukitea herrian egiten diran ekintza guztietan, eta emakumeen ikuspegia, nahiak eta premiak kontuan hartzea herriko bizitzaren esparru guztietan. "Kirol arloan, adibide bat ipintearren. Frontoia, momentuz, ez da emakumeen lekua; eta etorkizunean izango da, behar-bada. Baina ikusi dogu, besteak beste, leku ederrak, erosoak eta ondo zainduak behar doguzala, adibidez, pasieran ibilte-

e Lezaman

*"Heziketea behar dogu
barne-barnean
daukaguzan balio
horreek aldatzeko"*

ko gonbitea egiten dabenak". Segurtasun arloari jagokonez, herrian dagozan puntu baltzak emakumearen ikuspuntutik identifikatzea eta era egokian atontzea be hartu dabe garrantzitsutzat.

Gure erreferente gehienak, edo ia guztiak, gizonezkoak dira, eta taldearen helburua da Lezamako emakumeak eta hareen historia ikusgai ipintea. Horretarako, arrazoi bategaitik edo besteagaitik nabarmendu diran emakume lezamarren gaineko informazioa batuko dabe, herritarren artean zabaltzeko. Aurten, eta Martxoaren 8aren haritik, emakume baten izena ipini dabe Udaletxeko plazan, modu sinbolikoan. Emakume hori Maria Josefa Garabieta Olabarrieta da (1920-2005). Amaren Etxea jatetxekoa, ospetsua zan prestaten zituan indaba, txorizo eta odolosteengaitik. Gainera, Bizkaiko lehenengo emakume gidaria izan zan 1949an. Halanda be, eta esan deuskun moduan, emakumearen izena hurrengo goizerako kenduta egoan.

Alkarregaz filosofau

Udal politikak berrikustea be ezinbesteko urratsa da, gizonen eta emakumeen arteko bardintasunaren errealerako bidean. Hori dala eta, aurreko udal aurrekontuak genero ikuspegitik aztertu ditue beste talde eta zinegotzi batzukaz. "Instituzino mailan, hainbat alderdi landu barik dagozala ikusi genduan. Dirua zelan gastau dan jakin gura genduan,

Gehiegikeriak salatzeke bideak zabaltu

Moreak taldeak ikusi dauan beste hutsune bat da herrian ez dagoela bide egokirik emakumeen kontratatzeko. Lezamarren helburuen artean, hori betetea be badago. Kontau deuskuen moduan, orain dala gitxi, emakume batek bake-epaitegiko langile baten berba iraingarriak jasan zituan, umea erregistratzera joan zanean. Emakumeak umeak bere abizenak eukiko zituala adierazo, eta, besteak beste, honeek esan eutsan funtzionarioak: "aita bat asmatzeko; sexua gizon bategaz baino gehiagogaz euki ebala, beharbada, eta aita nor zan be ez ekiala; gizon baten izena ipiniz gero, ha salatzeke aurrea eukiko ebala; eta, behintzat, abi-

zenen ordena aldatzea, nabarmenkerietan ez ibilteko". Funtzionarioak, ostera, esan dau emakumeak txarto ulertu zituala bere berbak, eta eukazan aurretik jakinarazo baino ez ebala egin. "Emakumeak salaketea ipini eban Bilboko epaitegian, eta hareen erantzuna izan da ez dabela uste inongo erasorik egon danik. Bestalde, mozinoa sartu dogu Udaletxean, eta onartu egin da. Alkateak idatzi bat bialdu dau Justizia Sailera, eta Emakumdeari zein Arartekoari be emon deutsegu gaiaren barri". Emakunde erantzun deutse hareei ez jagokezala halako gaiak, eta, lerro honeek idatzi direnerako, beste erakunde bietatik ez dabe behin betiko erantzunik jaso. "Beharrezkoa bada, hareengana joko dogu barriro".

aurrekontuen barruan zeintzuk gauza sartu diran eta lehentasuna zeri emon jakon. Eta, jakina, diru-partida horreetatik zenbat diru bideratu dan emakumeengana, eta zer egiteko. Astiro-astiro landu beharreko gauzak dira eta hurbil daukaguzan erakunde publikoetara jo beharko da, eta galdetu". Kultura eta kirol ordentzetan emakumeen presentzia eta balioa azpimarratzea eta hizkuntza traktera ikuspegi feminista batetik lantzea be eskatu eta onartu da.

Talde zabala da Moreak taldea, gaur egun 10 emakume batzen dituen, baina espero dabena emakume lezamar gehiagorengan interesa biztea eta talde barrura erakartzea. "Emakumeok emakumeokaz egon behar dogu. Alkarrengandik ikasi, alkarregaz filosofau, eta gure beharrianak eta nahiak aztertu, osasun, poli-

tika, kirol, kultura... arloetan, kalean... Mikromatxismoak identifikaten ikasi behar dogu, eta horreek zergaitik onartzen dagozan aztertu. Heziketea ezinbestekoa da horretarako. Eta geure burua genero indarkeriatik babesteko be bai. Izan be, indarkeria horrek lotura estua dauka emakumeok pairatzen dogun desbardinatasunagaz, eskubide falteagaz, heziketa falteagaz..." Orain arte, Lezaman ez da egon protokolorik indarkeria sexistaren aurrean zelan jokatu finkatzeko eta erasotutak bere eskura daukazan baliabideak zehazteko. Protokolo hori Mankomunitateko Bardintasun teknikiariagaz landu dabe. "Danon eskubideak defenditako, emakumezkoenak be defendidu behar doguz. Eta gagozan lekutik urten. Osterantzean, boterea eta erabagiak beti egongo dira gizonezkoen esku".

 **ZAMUDIO**
Loteria Nazionalea

Leizaola L. plaza, 7
Tel.: 94 452 09 59
Faxa: 94 656 69 95
josuastorkiza@gmail.com

 **Carrefour**
express

ORDUTEGIA
Astelehenerdik ostiralera arte
9:00-14:30 / 17:00-20:30
Larunbatean
9:00-14:30

Pago kalea, 5
48170 ZAMUDIO

 **elekma**
LURRATZAREN BAT DUTEN ETXETREKINA ELEKTRIKO BERRIK
TELEBISTAK ETA ETXETREKINA ELEKTRIKO TIKAK

Lehenengo markak • Funtzionario onak
BOSCH, SIEMENS, BALAY

Txarritan erabiltzen, 25-37 eta 48180 bitartean
T: 944 539 232
www.elekma.es





Irudi honetan, Berresonaga jauregia;
eskuinaldean, Gudabikolandako
monolitoa.



t/a: Bestorrene

"Berbalagun batzuk, euskaltzaleak izateaz gainera, mendizaleak ere bagara. Era berean, gaur egun badago jende asko ibilbide luzeak egitea atsegina duena. Horregatik, eta euskara lagun dugula, pentsatu genuen Txorierriri bira osoa ematea, mendiz mendi", esan digute abentura honetan nahastu gaituzten berbalagunek. Antolatzaileek aurretik egin dute ibilbidea, hiru etapatan. Eta besteak beste, nondik joan zehaztu dute eta ibilbidearen zehetasunak GPSan sartu dituzte. Nahi duenak ibilbide osoa ikus dezake Wikiloc webgunean, "Txorierriri bira oinez" idazten badu.

Berrogeita sei kilometro inguruko ibilbidea izango da. Larrabetzuko plaza-teratik aterako gara goizeko 8etan, eta Legina auzotik gora mendilerroaren gaina laster hartuko dugu (ibilbidearen aldaparik handiena bertan dago). Gainez gain, atsedean txiki bat hartuko dugu Ganguren mendi tontorrean. Ikuspegi ezin ederragoa dago handik, alde bietatik, eta aurrean, itsasaldea. Artxandatik jarraituko dugu Enekuriraino. Bailaren beste aldera gurutzatzeko unea da. Lutxanara jaitsi eta Arriaga auzotik Erandio Goikora helduko gara. Geldiune nagusia bertan egingo dugu. Ostean, Akarlandatik gora joango gara Unbe mendi tontorreraino, eta apur bat jaitsiz, Lauroetaraino. Mendilerrotik jarraituz, Artebakarra auzora, lehenengo, eta Berreaga eta Gaztelumendi mendietara, geroago, ailegatuko gara. Elizaldetik Larrabetzuko plazara itzuliko gara eta amaitutzat emango dugu Txorierriri bira.

Txorierriri bira, oinez

Txorierriko berbalagunok aspalditik egiten ditugu ibilbideak bailaratik, euskaraz aritzen garen bitartean inguruko txokoak hobeto ezagutzeko asmoz. Baina berbalagun "zoro" batzuek ideia hau eduki dute: Zergatik ez Txorierriri bira eman, jarraian eta egun berean? Hitzordua apirilaren 23an, goizeko 8etan, ipini dugu Larrabetzuko plazan.

Artxandako haize-errota; atzean, Serantes mendia.



Eraikuntza interesgarriak

"Dena dela, argi izan behar da hau ez dela lasterketa bat. Helburua ondo pasatzea da eta bakoitzak bere indarrak neurtu beharko ditu. Ibilbide osoa egin daiteke, ibilbide erdia zein zati bat". Gainera,

martxarekin bat egiteko edo uzteko aukera egongo da zenbait lekutan, hala nola Artxandan, Enekurin, Erandion, Lauroetan eta Artebakarran. Ibilbide erdia egin nahi duzuenentzat, Erandio Goikoa da leku aproposa martxa utzi edo handik



INFORMAZIOA:
Telefonoa:
 635 75 35 95
E-mail:
 txorierri.berbalaguna@gmail.com
Bloga:
 www.aikor.com/txokoa/berbalagun
Antolatzaileak:
 TOTOAN TEEF
 Txorierriko Zerbitzuen Mankomunitatea

hasteko. "WhatsApp-aren bidez komunkatzeko asmoa dugu eta behar izanez gero, autoz jendearen bila joatea ere aurreikusi dugu".

Bestalde, mendiaz gozatu ez ezik, eraikuntza interesgarri asko ere ikusiko dugu ibilbidean zehar. Baserri eta jauregi ederrak, historia handiko ermitak, Erdi Aroko gudak edo frankisten garaipena gogorarazten dizkiguten monolitoak, frantsesek edo karlistek eraikitako gotorlekuak, Historiaurreko trikuharriak eta kastroak, Erdi Aroko galtzada, haize-errot bat... Eta ahaztu barik ibilbide osoa Burdinazko Hesiaren zatia dela eta bidean zehar hainbat aztarna daudela. "Ez dugu astirik izango gelditu eta horiek guztiak ondo aztertzeke, baina behintzat non dauden ikusiko dugu".

Egunari amaiera emateko eta indarrak berritzeko, afaritxoa izango dugu Goikoelexaldeko txokoa: sartenekoa 10 euroren truke. Ibilbidean parte hartzeko, aurretik eman beharko da izena. 635 75 35 95 telefono zenbakira deituta egin dezakezue.



SARRERAK AURRETIK EROSTEKO:
TXARTELDEGIAN
Edozein ekintza hasi baino
ordu bat lehenago






SONDIKAKO KULTUR ETXEA
 Cestero kalea, 1 (elizaren atzean)
 Telefonoa 94.453.64.13

ANTZERKIA

EL FLORIDO PENSIL-NIÑAS

Tantaka teatroa
 Komedia, gazte eta helduentzat
 Maiatzak 14, 20:00
 Prezioa: 10 €



ZINEA



KUNG FU PANDA 3
 95' AG (2D)
 Apirilak 3, 17:00



LA SERIE DIVERGENTE. LEAL
 121' EG-12 (2D)
 Apirilak 3, 19:30



EL SEPTIMO ENANITO
 83' AG (2D)
 Apirilak 10, 17:00 (EUSKARAZ)



EL PREGÓN
 AG (2D)
 Apirilak 10, 19:30

2D: 4 € 3D: 6 €

*oharra: produktorearen behar-izanen arabera programazioak aldaketak jasan ditzake



Euskalkiak.eus

Zuazogaz batera, honeek ipini dabe webgunea abian: Oneka Alvarez, Xabier Eizagirre, Iñaki Iñarra, June Lauzirika eta Teresa Portugal. Webguneak ahozko euskera dauka ardatz nagusiztat; eta sei atal: Sailkapenak, Ezaugarriak, Euskalkien jatorria, Euskararen batasuna, Hizkeraz hizkera, eta Ikus-entzunezkoak.

Lehenengo atalean, Sailkapenak atalean, euskalkiak bereiztu eta sailkatzeko egon diran teoriak azaltzen dira: Arnaut Oihenartena, Manuel Larramendirena, Louis-Lucien Bonaparterena, eta gaur egungo euskalkiak. Bost euskalki bereizten ditue Zuazok eta bere taldeak gaur egun: Mendebalekoa, Bizkaian, Arabako Aramaion eta Gipuzkoako Deba ibar gehienez egiten dana; Erdialdekoa, Gipuzkoako gehienez eta Nafarroako mendebaleko zenbait eskualdetan, Araitx, Larraun... egiten dana; Nafarra, Nafarroa gehienez egiten dana; Nafar-lapurtarra, Lapurdin, Nafarroa Beherean, Luzaide ibar nafarrean eta Zuberoako ipar-mendebalean egiten dana; eta Zuberotarra, Zuberoa gehienez

Koldo Zuazo hizkuntzalariak lan sakona egin dau, urteetan, euskalkien gainean. Lan horren emaitza euskalkiak.eus webgunean ipini dau eskuragarri. Besteak beste, euskalkien ezaugarriak eta beren jatorria, historian zehar egin diran sailkapenak, hiztunen grabazioak, euskera bateratzeko ahaleginak eta literatura euskalkiak topau geinbez bertan.

an eta Eskiulan (Bearn) egiten dana. Era berean, tarteko hizkerak kontuan hartzeko beharra azpimarratzen dabe; esate betarako, Deba ibarreko iparraldekoa

Euskera batuan eta historian zehar ha sortzeko egon diran ahaleginetan be ipini dabe arrete

(Elgoibar, Mendaro eta Mutriku), Mendebaleko eta Erdialdeko euskalkien arteko loturea egiten dauena; edo Baztan eta Ur-dazubi-Zugarramurdi eskualdekoa, euskara nafarraren eta nafar-lapurtarraren arteko loturea egiten dauena.

Etenbako barritu

Bigarren atalean, Ezaugarriak, gaur egungo bost euskalkien ezaugarri nagusiak batu ditue, hedadurea, ezaugarri linguistikoak eta bakotxaren azpieuskalkiak kontuan harturik; eta hirugarren atalean, euskalkien jatorria daukie hizpide. Laugarren atalean, euskera batuan ipini dabe arrete, eta historian zehar ha sortzeko egon diran ahaleginak batu ditue. Literatura euskalkiak eta tokiko estandarrek be aztertu ditue bertan. Burundako hizkera eta Araitx-Beteluko euskera eroan ditue Hizkeraz hizkera atalera, eta Ikus-entzunezkoak atalean, euskalki bakotzeko hiztunen grabazioak ipini ditue ikusgai eta entzungai. Hiztunen artean, Miren Amuriza bertsolaria (Berriz), Ander Lipus aktorea (Markina), Abel Barriola pelotaria (Leitza) eta Udane Juaristi artistea (Azkoitia) dagoz.

Webgunea edozein euskarritan erabili ahal izateko prestau dabe, ordenagailuan, tablet baten zein sakelako telefonoan, eta saiatu dira azalpenak ahalik eta argien emoten, webgunea adituei ez ezik hizkuntzaren mundura hurbildu gura dauen edonori be zuzenduta dagoalako. Webgunea ez dago geldi eta eten barik barrituko da. Holan, bada, laster beste hiru atal –Hiztegiak, Esaera zaharrak eta Esapideak– zabaltzeko asmoa daukie.

ARINKA KASTEGIA
Goiko kalea, 6 DERIO

LH – DBH – BATX
INGELES – MARRAZKETA
ERROBOTIKA
TAILERRAK / ESKOLA LAGUNTZA

944 544 753 695 78 77 74
www.arinkakopidenda.com arinkaikastegia.blogspot.com

Familia osorako kalitatezko arreta, zure esku

Zerbitzu Berrak
Logopedia
Podologia
Klinimasajes

clínica dental ZAINDUZ
hartz klinika

Txoriñeri etorbidea, 9 - Loria | Arteaga arkina | 48160 DERIO
94 454 01 01 | 657 79 54 45
info@dentatzainduz.com | www.dentatzainduz.com

HAUR-MODA
Tximeleta

Gernikako Arbola, 8 DERIO
94 454 14 35

Gure planetaren sukarra



t: Juan Luis Goikoetxea / a: Aritz Albaizar

Ene lurraldean, udako irtetegiak gau-
ez baino ez du hartzen eguzkia; egunez
beroegi egiten du-eta.

Ene lurraldean, neguak hotzak izan
ohi dira; aurtengoa, baina, epela. Bero-
tegi-efektuagatik omen da. Egun epel-
duetan, haizeak boladaka jotzen duene-
an, pago-orriak hego bakarreko txori dira
eta orbelak bidaiari herren. Haizerik ez
dabilenean, oster, orbelak piloetan
batzen dira hausnartzeko, udaberrian
jaioko diren orriak zer nolako girora erne-
ko diren; lehorte lehorrak erkin lagako
dituen hostoak ala euri-garo oparopean
soin-zabal haziko diren.

Ene herrialdean, planetaren sukarra
neurtzeko termometroari baino txorime-
troari begiratzen diogu, elaimetroari,
txindorrarenari: Non dira orain hiru urtera
arte baserriko atarira hurreratzen ziren
elaiak? Non neguetako txindor papargo-
rriak?

Hala elaiak nola txindorrek berriz
geureganatzeko, planetaren kiskaltzea

eten egin behar dugu, jakinik, lurraren
sukarra gaixotasunaren sintoma baino
ez dela; hainbeste karbono dioxido
metatzearen ondorio.

Izatez, lurra gure aurrekoa da, eman
egin zaiguna; begirunea zor dioguna.
Gure gazteek –eta udaberrian jaioko
diren orriek– eskatzen diete politikoei,
ez makurtzeko burua diru-merkatarien
aurrean; eusteko bizitzeko eskubideari,
abere zein pertsonenari. Zaintzeko abe-
rastasun naturalaz gain ondare kultura-
lak, denak ere mehatxaturik daudenak.

Gure lurraldeak geuri ere eskatzen
digu “erabil eta bota” deritzan logika
alde batera uzteko; zaborrak ondo
bereizteko; berogailua gradu bat gorago
ipini barik jertse artilezkoa janzteko.

Munduko biztanleriak eskatzen
digu, jagoteko geure etxea, alegia, geure
planeta; ez dezagun sastegi bihurtu.
Bestela, itsasoak gora egingo digu, zeren
hainbeste zikinkeria garbitzeko –itsaso-
aren logikan– gero eta ur gehiago
beharko baitugu lehorreko gizaki ziki-
nok.

RUBEN
ERLOJU-DENDA, BITXITEGIA

Lehendakari Urzola plaza, 5
48170 Zamudio
94 452 14 49

bai euskarari

Bai Euskarari Zuzentzeria,
48100 Leizorako (Bizkaia)
euskaltzainak irakatsi

zuzentzeria euskarari
leizorako.org

urrats biziak

Twitter Facebook WhatsApp

www.bai-euskarari.org

RPM
MAYORISTAS INFORMATICOS

ENPRESETARAKO INFORMATIKA
SAREEN MANTENIMENDUA
ZERBITZU TEKNIKOA

Avda. Pinoa 2C Nave 5 - 48170 - Zamudio
Tel: 944521544 - <http://www.rpmmayoristas.com>

ZAMUDIO-DERIOKO LURLANGILEEN ETXEA

Santi Mami auzoa, 1
Tel.: 94 454 10 06
Faxa: 94 454 12 15
48170 Zamudio (Bizkaia)

SANTI MAMI
ALBAILARITZA

Nerea Pedrosa Gela, 517
COOP. GANADERA ZAMUDIO DERIO
Tel.: 94 454 13 77 - 689 04 31 15
Faxa: 94 454 12 15

Laranja-mousse eta txokolatezko tartea

Osagaiak (4 lagunentzat):

–**Bizkotxoa egiteko:** arrautza bi; 70 g gurin; 75 g azukre; 60 g urin; hiru koilarakada txokolate-hauts; koilarakada txiki bat legamia; laranja-birrindurea.

–**Txokolate-krenea egiteko:** 150 g txokolate esneduna; 100 g fondant txokolate; 80 g azukre; 400 g harrotzeko esne-gain; mamin sobre bat.

–**Laranja-moussea egiteko:** 100 ml laranja-ur; gelatina sobre erdia (sabore barik); 60 g azukre; arrautza bi; gatz apur bat; 150 g harrotzeko esne-gain; 20 g azukre-hautsa; laranja-birrindurea.

–**Laranja-jarabea egiteko:** lau laranja; 200 g azukre; hiru gelatina-xafila (sabore barik).

Prestetako errea:

Labea 180 gradutan berotuko dogu aurretik. Arrautzak azukeragaz irabiau eta urin urtua, txokolate-hautsa, laranja-birrindurea, urina eta legamia gehituko doguz. Ondo nahasiko doguz osagai guztiak. Molde bat labarako paperaz forrau eta nahasia hara botako dogu. Labara sartuko dogu 15 minutuan eta 180 gradutan.

Txokolate-krenea egiteko osagai guztiak hartu eta Maria bainutan egosiko doguz. Eragin egingo dogu, harik eta txo-

kolatea ondo urtzen dan arte. Krenea bizkotxoaren gainean ipini eta hozkailura sartuko dogu. Laranja-moussea holantxe egingo dogu: laranja-ura eta gelatina edalontzi batera bota eta hidrataten itxiko dogu. Gorringoak azukeragaz harrotuko doguz Maria bainutan, baina kontuz ibiliko gara gorringoak ez egosteko. Laranja-ura eta gelatina berotu, eta eragin egingo dogu gelatina ondo nahasteko. Gorringo-krenea bota eta eragin egingo dogu, dana ondo nahasten dan arte. Hoztitzten itxiko dogu.

Bestalde, esne-gaina azukre-hautsagaz harrotuko dogu; eta zuringoak, gatzapapur batez. Laranja-mousse hotz dagoanean, esne-gaina eta zuringoak botako deutsaguz. Ondo nahasi eta txokolate-kremaren gainean botako dogu. Hozkailura sartuko dogu.

Laranja-jarabea egiteko, lehenengo eta behin, laranja zuritu, ebagi eta lapiko baten ipiniko doguz azukeragaz. Su motelean egosiko dogu 45 minutuan, eta egiten itxi barik. Gelatina-xafiak uretan ipiniko doguz bigunzteko. Laranja surtatik kendu eta birrindu egingo doguz. Gelatina gehitu eta ondo eragingo dogu, urtzeko. Hoztitzten itxi eta, ondoren, tartearen gainean botako dogu. Hozkailura sartuko dogu.



a: kristinehnenborg.com

Etxeko sukaldaritza

Untxi laban, patatakaz



a: juliaysusrecetas.com

t: Maite Lekerika

Osagaiak:

–Kilo eta laurdeneko untxi bat.
–Lau patata (0,5 cmko zatietan ebagita).
–Sei berakatz-ale (txikituta), perejila, pipermin zati bat, oliba orioa eta gatz (osagai horreek guztiak txikitu eta nahastu).
–Ardao zuria.

Prestetako errea:

Patatak nahasiaz igurtzi (apur bat) eta labarako azpil baten ipiniko doguz (ondo zabaldua azpil osoan zehar). Untxia be nahasiaz igurtzi eta pataten gainean ipiniko dogu. Aluminio-paperaz estaldu eta labara sartuko dogu 175 gradutan. Noizbehinka, ordu erdiro-edo, buelta emon eta ardao zuri-zurrusta eder bat botako deutsagu. Papera kendu eta gorritzen itxiko dogu. Noizbehinka saldea botako deutsagu gainetik eta, beharrezkoa bada, ur apur bat be bai. Egin arte eukiko dogu laban.

LOREGARBI GARBIKETA ZERBITZUAK

Gutxi-kanak, orokorrean
Azukreko konsumatzaileak
Mazotzko gutxi-kanak
Bulegoak eta lokalak
Olinu amaierako garbiketa
Kantinatzen
Zabor biltzea

Besalde Plaza, 1 - B° Aldekoa
48160 DERIO (Bizkaia)
loreagarbi@euskalnet.net

Tel: 94 406 49 92
656 712 443
Fax: 94 406 49 93

Jatetxea **SAN ISIDRO**

EUSKO OKELETAN ESPEZIALIZATUA ETA ETXERKO GOZOGINTZA APARTA

ESKONTZAK, BATAIOAK, JAUNARTZEAK

Karta zerbitzua - Laneko zerbitzuak - Jantoki pribatuak
Jantoki bakoitzean 180 toki - Sukaldaritza tradizionala

Telefonoa 94 454 07 88
Fax 94 454 14 18

Murgailde etorbidea, 25
48160 DERIO

t i k a k

EGUNEKO MENUA
lehenengo platera
bigarren platera
postrea
ogia
edaria

9€

Bestorrena 5, Behe 48160 DERIO
T: 94 454 55 55



Zer irakurri?

Nork komikia

Txerra Rodríguez (Liluratura taldea)

Bertsolari aldizkariak 100 ale egin zituela ospatzeko, *Nork* izeneko komikia plazaratu dute Xabi Payak eta Patxi Gallegok. Lehen orritik amaierara arte irribarrera ahotik kendu ezinik ibili naiz. Eta hori krimen baten inguruan ondutako komikia izanda!


Argumentua ezagutzen ez baduzue, sinplea da: Andoni Egaña hil egin dute oholza gainean eta, gainera, Anjel Mari Peñagarikanoren 1991ko Gipuzkoako txapela ostu dute. Lau detektibe arituko dira nor baino nor kasuak argitu nahian: Amezketako aguazila, Amaia Ezpeldoi (Itxaro Bordak sortutako detektibea), Jესika Fletxeberria eta Bertsocop (erdi gizaki, erdi makina).

Eta tartean, bertsolariak, ETBko aurkezleak, sukaldariak, idazleak eta beste

hainbat agertzen dira liburuan. Eta, gainera, nork bere euskalkia erabiltzen du (eskertzen da horrelako aniztasuna eta eskertzen dira tankera honetako lotsagabekeriak). Eta pertsonaia batzuek bertotan egiten dute berba. Eta jolasa, eta dibertimendua, eta guztiari barre egiteko aldarte. Eta euskarazko kulturaren erreferentziak modu arinago batez lantzeko gogoa eta modua. Eta hori guztia asko da, berritasun handi samarra da gurean.

Niri Patxi Gallegoren *Pololoak* trilogia ekarri dit gogora komikiak, baina uste dut *Pololoak* beste hau baino lotsagabeagoa dela. Barre egin bai, baina ez dago horren atzean bestean egon zitekeen hausnarke-ta maila.

Hala ere, Patxi Gallego itzuli da eta hori beti da berri ona. Euskarazko komikigintzan izen propio nagusietako bat da bera, eta komiki honekin ere maila altu



samarra utzi du, beste behin. Gainera, Xabi Payaren gidoiak ere lagundu diola-koan nago. Jateko moduko komikia, bai horixe!

HARAGITEGIA
URDAITEGIA
IMAZ

MUNGIALDE ETORBIDEA,2
TLFNOA: 94 454 10 75
DERIO
Eskerrik asko
etortzeagaitik

OSTEOPATIA-ZENTROA
ORDEZKO TERAPIAK

lasai

Luis M^a Asensio
Terapeuta naturopata

Larrabarri, 1 lonja - 48160 DERIO
Tel: 94 454 10 28 - Sakelekoa: 655 74 24 69
osteopatiasalai@gmail.com

LEIRE BEGOÑA
ULEAPAINDEGIA

MUNGIALDE ETORBIDEA, 20
48160 DERIO
94 454 26 32
Jarrai jarrausi Facebook-en

Erakusketak

Sondika

- > "Viaje al país de los vascos", Wilhem Von Humboldt-en margolanak. Apirilaren 4tik 27ra, Erakusketa Aretoan.

Loiu

- > Hans Christian Andersen-en ipuinak. Apirilaren 8ra arte, liburutegian.

Derio

- > Buzoiak. Apirilaren 7tik 28ra, Kultur Birikan. Untza mendi taldeak antolatua.

Hitzaldiak

Zamudio

- > "Euskal Herria eta ustelkeria: oasia ala ispilatzea?", Ahoztar Zelaetaren eskutik (euskaraz zein gaztelaraz). Apirilaren 21ean, 19:30ean, Zamudiotorren. Zamudioko EH Bilduk antolatua.

Larrabetzu

- > Opera, umeei zein nagusiei zuzenduta. Apirilaren 19an, 18.30ean, Anguleri Kultur Etxean.

Ikastaroak

Loiu

- > Autoestimua lantzea, emakumeei zuzenduta. Apirilaren 19an eta 26an, eta maiatzaren 3an eta 10ean, 19:00etik 20:30era, Elotxelerrin. Izena ematea: apirilaren 13ra arte, Udaletxean.

Derio

- > "Mugikorra nagusituz", nagusientzako tailerra. Apirilaren 18an, 11:00etan, Kultur Birikan. PR4 Tecnologia Social eta Nagusien Etxeak antolatuta.

Ikuskizunak

Sondika

- > Umeentzako ipuin kontalaria: *Andrina Basandrina*, Zurrumurru taldearen eskutik. Apirilaren 22an, 18:00etan, liburutegian.

Derio

- > Bizkaiko Bertsolari Txapelketa. Udaberriko fasea. Apirilaren 30ean, 17:30ean, Gurea Aretoan.

Zamudio

- > *Uda gau bateko ametsa*. Apirilaren 15ean, 20:00etan, Arriaga antzokian.
- > *Ipuinak jo eta musikak kontatu*, umeentzako ipuin saioa. Apirilaren 16an, 11:30ean, liburutegian.

Larrabetzu

- > Bertso saioa. Apirilaren 3an, 14:00etan, Aretxabala tabernan. Itallen bertso eskolak eta Aretxabalak antolatua. Bertsolariak: Malen Amenabar, Jon Larrabide eta Aitor Esteban.

Irteerak

Txorierrri

- > Herri Urrats (Senpere, maiatzaren 8an). Izena ematea: apirilaren 18tik maiatzaren 4ra arte.

Zamudio

- > Iparralde, Lagatzu euskara elkarteak eta Arroeta mendi taldeak antolatua. Apirilaren 23an eta 24an. Izena ematea: apirilaren 15era arte, 645738845 telefonoan edo lagatzu@lagatzu.org helbide elektronikoan.

Lezama

- > Ganekogorta. Apirilaren 10ean, 9:30ean, eskolan. Gailur mendi taldeak antolatua.
- > Urbasa. Apirilaren 23an, 8:30ean, plazan. Gailur mendi taldeak antolatua.

Lehiaketak

Zamudio

- > Scalextric. Lehenengo zatia, Gazte Estazioan; bigarrena, Racing elkartearen lokalean.

Musika

Larrabetzu

- > Jabier Muguruza. Apirilaren 17an, 18:30ean, Hori Bai gaztetxean.

Bestelakoak

Txorierrri

- > Lezama-Larrabetzu, Txorierrriko Osasunaren karrera-martxa. Apirilaren 17an, 10:00etan.

Lezama

- > Zuhaitz eguna. Apirilaren 3an, 11:00etan, plazan.



Hemen prestakuntzak lana dakar berarekin



POLITEKNIKA IKASTEGIA
TxORIERRI
S.COOP.

Centro de Educación Secundaria y Formación Profesional
Lanbide Heziketa eta Bigarren Irakaskuntzarako Ikastetxea

Untzaga Ibaia Kalea, 1
48160 – DERIO

Tel.: 94 403 40 60
Fax: 94 403 40 61

info@txorierri.net
www.txorierri.net

Eusko Jaurlaritzak diruz-lagundutako ikastetxea

**ATE IREKIEN
JARDUNALDIA**

(18:30etatik aurrera)

Apirilaren 19an
Maiatzaren 3an
Maiatzaren 26an



Primer centro de FP de Bizkaia
distinguido con la Q de oro
**Premio Vasco a la
Calidad de Gestión**

EUSKO JAURLARITZA
HEZKUNTZA, SPINERTSIAK
ETA IZENBETASUNA



GOBIERNO VASCO
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN



Ikastolen Elkartea



ZIENTZIAK BATXILERGOA LANBIDE HEZIKETAKO ZIKLOAK

FABRIKAZIO MEKANIKOA

- Mekanizazio teknika
Erdi mailako zikloa (2.000 ordu)
- Fabrikazio Mekanikoko Diseinuko goi mailako teknika
Goi mailako zikloa (2.000 ordu)
- Produzioaren Programazio goi mailako teknika
Goi mailako zikloa (2.000 ordu)

SEGURTASUNA ETA INGURUMENA

- Ingurumen Hezikuntza eta Kontrol goi mailako teknika
Goi mailako zikloa (2.000 ordu)

ELEKTRIZITATEA ETA ELEKTRONIKA

- Automatizazio eta Robotika Industrialeko goi mailako teknika
Goi mailako zikloa (2.000 ordu)
- Telekomunikazio eta Informatika Sistemetako goi mailako teknika
Goi mailako zikloa (2.000 ordu)

MERKATARITZA ETA MARKETINA

- Salmenten eta Merkataritza Espazioen Kudeaketako goi mailako teknika
Goi mailako zikloa (2.000 ordu)

**ESKAINTZAK
UDABERRIA 2016**

BADAUKAZU EDUKI BEHARREKOA?

BELARRA
MOZTEKO MAKINA
149€ TIK
AURRERA

UR-GARBIGAILUAK
139€ TIK
AURRERA

MOTOSEGAK ETA
SASI-GARBITZEKO MAKINA
149€ TIK
AURRERA

BAKARRIK ZURE DENDA ESPEZIALIZATUAN

STIHL®

VIKING®

Lezama
Aretxalde auzoa, 105
94 455 62 66
lezama@aurtenetxe.es

Bilbao
Autonomia, 57
94 427 29 18
bilbao@aurtenetxe.es

Mungia
Sogean ind, 34. pab
94 674 83 62
mungia@aurtenetxe.es

 *garaje*
AURTENETXE
www.aurtenetxe.es

NEKAZARITZA ETA LOREZAINTZARAKO TRESNERIA SALDU ETA KONPONTZEN DUGU